




**"Nafarroako Mendi
Federazioari buelta
eman diogula uste dut"**

Gaur, ostirala, Euskal Mendizaletasunaren
galan parte hartuko du Martin Montañesek / 2-4



Feria asteburua

Pandemiagatik bi urtez ospatu gabe egon ondoren, besteak beste, ganadu eta nekazal azoka izanen dira igandean Altsasun / 8-9, 12-13

EMILIO PEREZ (BARAKALDO)

**Hizkuntzaren
erabileraren kale
neurketaren datuek
egitekoak utzi dituzte
herrietan / 6**

**Transexualitatea
ikustarazteko
egitaraua prestatu
dute Mank-ek eta
bost udalek / 7**

**Sakanako aurreneko
museoa Aralarko
santutegiari eskainita
dago eta atak
zabaldu ditu / 10**



SAKANAKO ERRALDOIAK / 11

**40. Urbasako Igoera,
borobila: Iraolaren
errekor ikusgarria
eta Palaciosen postu
bikaina / 18-19**

**'Mel eta ehun goibel'
album ilustratua da
Castillo Suarezen eta
Morkotsen azken
lana / 22-23**

EGAN
50 urte

KONTZERTU BEREZIA
EGAN TALDEAREN ESKUTIK

URRIAK 16, IGANDEA
19:30 | FORU PLAZA

"Bi mendi federazioak sintonia eta bide berean gaude"

MARTIN MONTAÑES ALSASUA NAFARROAKO MENDI ETA ESKALADA FEDERAZIOA Gaur XXVI. Euskal Mendizaleatasunaren Gala hartuko du Altsasuk, Euskal Mendi Federazioak eta Nafarroako Mendi Federazioak elkarrekin lan egiteko bidearen erakusle

Maidar Betelu Ganboa

IRURTZUN / ALTSASU

Sakana mendizaleen topaleku izango da ostiralean. Altsasuko Iortia Kultur Guneak XXVI. Eus-

kal Mendizaleatasunaren Gala hartuko du 19:00etan, Pyrenaica sariketa entzutetsua, mendi kirol sariketak, omenaldiak eta beste izango dituena. Euskal Mendi

Federazioak eta Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak elkarlanean antolatutako ekitaldia da, Altsasuko Mendigoizaleak eta Dantzaleku Sakana klub

laguntzarekin. Ekitaldi garrantzitsu hau bigarren ez ingo da Nafarroan, eta igandean Euskal Herriko Erdiguneko Martxan abiatu zen prozesuari jarraiki, bi federazioak elkarlanean aritzeko sortu duten organo iraunkorraren fruitua da. Bi federazioak "bide berean eta sintonia berean" daudela nabarmendu du Martin Montañes Alsasua Nafarroako Mendi eta Kirol Federazioko presidentea, Irurtzunen bizi denak.

Nafarroako Mendi eta Kirol Federazioko presidente zara 2012tik. Nola animatu zinen kargua hartzera?

Ez dakit engainatu ninduten edo nik neure burua engainatu nuen (kar, kar...). Sanduzelaiko Gaztaroa mendi klubeko kidea naiz. Nafarroako Mendi eta Kirol Federazioko asanbladetara joaten nintzen kluba ordezkatzera. Duela 20 urte gure klubeko Koldo Goñi izan zen federazioko presidentea. Juntan sartzea eskatu zidan, eta ni formazioaren atalean lan egiteko prest azaldu nintzen. Nafarroako Goi-Mendiko Eskolaren ardura hartzea proposatu zidan, eta 8 urtez egon nintzen jardunean. Presidentzia

aldaketa egon zen, Txema Iriartek hartu zuen kargua eta eskolako arduradun izaten jarraitzea proposatu zidan, baina bere lan egiteko moduarekin ez nengoen ados eta utzi nuen. Eskolako alpinismo eta eskalada monitore gisa ibili nintzen. Lau urte barru, hauteskundeetarako hautagaitza bat prestatzen ari zirela eta ea juntarako animatuko ote nintzen etorri ziren ate joka. Formazioan jarraitzeko prest azaldu nintzen. Bat-batean presidenterako hautagaiak atzera egin zuela eta ni presidente aurkezteko eskatu zidaten: "federazioan oso estimatua zara, klubekin harreman onak dituzu, Goi-Mendiko Eskolan lan handia egin duzu..." halakoak. Beti pentsatu dut guztia prestatuta zegoela, ez zutela presidenterako hautagairik, baina ez didate inoiz hori baieztatu (kar, kar...). 2012tik presidente naiz. 2024an bukatuko dut kargua eta ez naiz berriz aurkeztuko, hori argi dut.


2024 urte berezia da. 1924ko maiatzaren 18an Federación Vasco Navarra de Alpinismo sortu zen Elgetan, urte luzez Euskal Herri osoko mendizaleen federazio bakarra izan

EUSKARALDIA
HITZEZ EKITEKO GARAIA
2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra

EUSKARALDIA

f Instagram Twitter
euskaraldia.eus

euskaltzaleen topagunea
Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
2030



Martin Montañese 15 urte daramatza Iruztzunen bizitzen. Erabakia hartzerakoan mendiaren gertutasuna asko baloratu zuen.

zena. 2024an 100. urteurrena berteko da.

Federación Vasco Navarra de Alpinismo 63 urtez Euskal Herriko mendizale guztien federazio bakarria izan zen, baina Autonomia Estatuaren sorrerarekin federazioak autonomiara antolatatu zituzten eta hor sortu ziren Nafarroako Federazioa eta Euskal Mendi Federazioa (EMF). Azken horren barruan daude Arabakoa, Gipuzkoakoa eta Bizkaikoa. Federazio bakoitzak bere autonomiatik jasotzen ditu dirulaguntzak, gure kasuan Nafarroako Kirol eta Gazteria Institututik. Duela bi urte Zigor Egia Euskal Mendi Federazioaren presidentea izendatu zuten, eta berarekin harremanetan jarri nintzen bi federazioak elkarlanean hastea proposatzeko. Badakigu ezingo dugula garaiko Federación Vasco Navarra de Alpinismo delakoa berpiztu, baina elkarrekin lan egiteko organo iraunkor bat sortu dugu eta organo horrek zein marko juridiko edo zuzenbide esparru izango duen aztertzen ari gara orain. Badaude elkarlanean lan egiten duten federazioak, esaterako herri kirolak eta pilota, eta guztia aztertzen ari gara. Gure egitasmoa publiko egin dugu, igandean Euskal Herriko Erdiguneko Martxan ere hala berretsi genuen, eta Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurlaritzak

jakinaren gainean daude. 2024an bi federazioen 100. urteurrena ospatuko dugu eta ekitaldi mordoa ari gara antolatzen. Presidente kargua urteurren bereziaren ondoren uztea, bi federazioen nolabaiteko batasun horrekin, amaiera bikaina izango da.

DIZIPLINA ANITZEKOA

Zein dira Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioaren lan ildoak? Gurea federazio konplexua da, diziplina anitzekoa, eta lan bolumen izugarria duena. Ilbeltzaren 1etik 31ra arte ez naiz asperitzen. Bulegoan ez gara gelditzen. Kirol arloan lau diziplinetan egiten dugu lan: eskalada, mendi lasterketak, eski taldea eta martxa nordikoko taldea. Formazioa eta segurtasun komitea ezinbesteko lan ildoak dira. Nafarroako Goi-Mendiko Eskola gure federazioaren oinarrietako bat da, formazioa lantzen baitugu bertan, eta formaziorik gabe segurtasun gutxi izaten baita. Gazteak trebatzeko teknifikazio taldea dugu ere bai. Bestalde, Nafarroako GR edo GRP mendi ibilbideen eta xenden sarearen mantenuaren eta homologazioaren ardura gurea da. Ekipamendu eta berrekipamendu komitea Nafarroako eskalada bideen mantenuaz arduratzen da, segurtasunerako ezinbestekoa. Horretarako Nafarroako Herri-zaingo Departamentuko Babes

Zibilarekin hitzarmena dugu. Azkenik, ingurumen atala dugu, Belaguako aterpea lantzen duen sekzioa, eta bestelako administrazio lanak.

Nola antolatzen duzue hau guztia?

Federazioan hainbat lan esparru edo batzorde daude, aipatu berri ditugunak. Bakoitzak bere autonomia du eta nik konfiantza osoa dut eurengan. Erabaki garrantzitsuak juntara edo asanblada orokorrera eramaten dira, eta bestelakoak batzorde bakoitzak hartzen ditu. Ni guztiaren jakitun naiz eta gehienbat arlo administrazioan aritzen naiz: administrazioarekin bilerak, federazioen arteko bilerak, Espainiako Federazioarekin (FEDME) bilerak eta bestelakoak.

Federazioko presidente izateaz gain, MAPSA Kooperatibako langilea zara. Nola moldatzen zara?

Agenda oso estua dut eta mugikorrari lotuta nago ia beti. Nola egiten dudan? Nire aisialdiari denbora asko kenduz. Inork ezin du imajinatu zenbat ordu diren. Eskalatzea izugarri gustuko dut, baina 5 hilabetez eskalatu gabe egon izan naiz. Oporretan irteeraren bat egiten dut. Aurten, esaterako, Joseba Arlegirekin Panticosan eta Pirinioetan eskalaten egon ginen bospasei egun, baina ezin naiz 15 egun desagertu. Telefonoarekin konektatuta egon beharra dut beti. Istripuren bat edo gertatzen bada, han egon

beharra dut. Gogoan dut Pumori-ko istripua izan zenean Nafarroako Goi-Mendiko Eskolako arduradun nintzela. Halakoetan federaziokoek hor egon beharra dugu.

Nafarroako GR edo Mendi Ibilbideen Sarearen mantenua da zuen arduratoko bat. Behin sarea deskatalogatu behar izan zenuten, Nafarroako Gobernuak urte batzuetan ez zizuelako dirulaguntzarik eman. Garai nahasiak izan ziren. Orduko Nafarroako administrazioarekin ez ginen ados jartzen, eta ikusita zenbait urtez dirulaguntzarik ez gurela jaso eta ezinezkoa zitzaigula kostu hori gure gain hartzea, Mendi Ibilbideen Sarea deskatalogatu behar izan genuen. Azkenean egoeraren larritasunaz jabetu ziren. FITUR-en Nafarroa berdea saltzen

"GUREA FEDERAZIO KONPLEXUA DA, DIZIPLINA ANITZEKOA ETA LAN BOLUMEN IZUGARRIA DUENA"

"14.328 FEDERATU DITUGU, FUTBOL FEDERAZIOAREN GAINETIK. MADRILEN FLIPATZEN DUTE"

dute, Nafarroako GR eta Mendi Ibilbideen Sarea, eta sare hori ongi egon beharko da, hurbiltzen diren mendizaleen segurtasunagatik. Zorionez, ados jarri ginen eta gobernu aldaketekin elkar ulertze hori hobea izan da. Dirulaguntza jasotzen dugu, eta gora egin du kopuruak. Nafarroako Gobernutik auditoria egiten digute, eta duela gutxi Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuarekin izandako bileran esan ziguten ibilbideak aztertzen egon zirela eta oso ongi markatuta daudela.

FORMAZIOA ETA SEGURTASUNA Nafarroako Goi-Mendiko Eskola federazioaren pilareetako bat dela nabarmendu duzu, formazioa eta segurtasuna sustatzen baitu.

Nafarroako Goi-Mendiko Eskolak osasun bikaina du. Bere garaian Koldo Goñi presidentea zela eskolaren ardura hartu zenean bestelako egoera zen, ia ia ez zegoen operatibo. Ez zegoen zuzendaritzarik ez eskolako aktibitateen arteko koordinaziorik. Zortzi urteko lan gogorra izan zen, baina eskola gutxika funtzionatzen hasi zen. Nafarroako Goi-Mendiko Eskola federazioaren ente formatibo eta pedagogikoa da, federazioaren oinarrietako bat. Pedagogikoa da gai teknikoetan federazioa aholkatzen duelako, eta pedagogikoa da formazioa eskaintzen dugulako. Eskalada, alpinismo, eski, orientazio eta bestelako ikastaroak eskaintzen ditugu. Finean, helburua da ikastaro horiek egiten dituztenak mendiaz eta euren zaletasunaz gozatzea, baina modu seguruan. Eta hori oso garrantzitsua da. Bestalde, segurtasun batzordeak Nafarroako Goi-Mendiko Eskolarekin lan egiten du amankomunean. Ikastaro batzuk antolatuta ditugu, 25 eurotan, mendian segurtasuna lantzeko oinarritzko ikastaroak. Arrakasta handia dute, eta tokiak betetzen ari dira. Mendian ezbehar kopuru gehiago dago, eta hausnarketa egin behar dugu. Segurtasuna nahi dugu, eta hori formazioari lotuta dago. Jendea trebatu dadila, bere zaletasunaz modu seguruan disfrutatu dezan. Hori da eskolaren xedea.

Zenbat federatu daude Nafarroako Mendi eta Eskalada federazioan? Egun 14.328 federatu ditugu. Nafarroan federatu gehien ditugun federazioa gara, futbol federazioaren gainetik. FEDME-ko

bilerak ditugunean Madrilen flipatzen dute. 60 nafarretatik bat Mendi Federazioan federatuta dago. Presidente sartu nintzenean 8.600 lizentzia inguru genituen, konfinamenduaren ondotik booma egon zen eta 2.000 pertsona federatu ziren ia konturatu gabe, baina goranzko tendentzia horrek bere horretan jarraitzen du: 2022 urtea 14.018 lizentziekin despeditu genuen, eta egun 14.328 gara. Bestalde, 116 kirol klub dauzkagu. **Aldiz, Gabon Gaueko aurreko igandean Aralarko Mendigoizale Egunean mendi klubetako mendigoizale gehienak adinduak direla nabaria da. Betiko mendigoizaleak krisian al daude? Gazte jendea mendira doa baina bere kabuz?**

Mendira modu indibidualagoan joaten da jendea, hori argi dago. Karmele Biurrun presidenteordea da mendizale klubak koordinatzen dituen eta gai hau mahai gainean jarri dute. Betiko klubek euren aktibitatea asko jaitsi dute. Batzuk Mendigoizale Eguneran –aurten abenduaren 18an izango da– eta txango gutxi batzuetara ateratzen dira soilik. Ez dakigu gaiari nola heldu, zaila delako. Egungo gazte jendea oso indibidualista da, eta autobusarekin irteera egitea ez dute planteatu ere egiten. Furgonetan lau lagun bildu eta euren kabuz doaz mendira. Betiko mendigoizale klubak esentzia galdu da, baina banago gaur egungo egoerak bulkatuta esentzia hori berreskuratzeko moduan egon gaitzkeela, krisiak, gasolioaren garestitzeak eta bestek betiko klubak filosofiarra eraman ahal digutelako. Gainera, autobusez gutxiago kutsatuko dugu. Dena den, orokorrean gazte jendeak ez du klub batean sartu eta konpromisorik hartu nahi. Ekitaldiak egotea nahi dute, baina ez antolatzea. Gizarte honetan bizitzea egokitu zaigu, baina dena den, itxaropen pixka bat badut.

Mendi istripuek gora egin dutela esan duzu. Geroz eta mendizale gehiago, istripuak egoteko probabilitate gehiago. Baina egia da ere askok mendira oinarrizko ezagutzarik gabe jotzen dutela, beharrezko prestakuntzarik gabe.

Historikoki ezbehar kopuru handia duen federazioa gara. Batetik, esandakoa. Geroz eta mendizale, eskalatzaile, mendi korrikalari, alpinista, senderista... gehiago, istripuak egoteko probabilitate gehiago. Hori horrela da. Pandemiaren booma gertatu zenean argi ikusi genuen: jendeak men-

dira jo zuen ia itsuan, eta horrek mendiko segurtasunean eragina izan zuen. Horregatik antolatzen ditugu segurtasun ikastaro gehiago. Bestetik, mendiko lasterketan konturatzen ari gara korrikalari asko ahalik eta pisu gutxien eramateko eta azkarrago joateko jantzi eta bitarteko gutxiago erabiltzen dituztela, eta ahaztu egiten dira mendian bat-batean lainoa sartu daitekeela eta tenperatura jaitsi. Sakanako Ibilaldian gertatu izan da, Beriainen elur-bustia egotea eta jendea tirantedun kamiseteekin ibiltzea, korrika, ia hipotermiarekin. Mendi lasterketetan aritzeko jendeak jakin behar du zein maila duen, lasterketa hori egiteko gai ote den eta behar bezalako kirol jantziak dituen. Mendi lasterketen inguruko formazio espeziфика ere egiten dugu.

Mendi lasterketen gorakada izugarria izan da. Ildo honetan, atletismo federazioarekin ika-mika dago, atletismo federazioak trail lasterketak ere antolatu nahi dituelako.

Ni ika-mika horretan ez naiz sartuko. Ez naiz beste federazio batekin gerran sartuko. Atletismo federazioak urte asko daramatzate mendi lasterketetan sartu nahirik; ez dute inoiz aitortuko zergatik, baina guztiok badakigu zergatik den. Mendi lasterketen gorakada, esan bezala, izugarria izaten ari da. Gure lizentzia kopuru asko mendi lasterketetako korrikalarietatik dator. Federatzen diren klub asko ere mendi lasterketak antolatzen dituztelako da. Era berean, mendi korrikalari asko diziplina askokoak dira: mendian korrika egiten dute, eskiatu, eskalatu...

Beriainen mendi istripu ugari egoten dira. Nafarroako puntu beltzetako bat al da?

Beriain da Nafarroan mendi istripu gehien gertatzen den mendietako bat. Mendi ederra da, oso erakargarria, badirudi edonork igo ahal duela, baina bere zailtasunak ditu eta gertakariak eta estatistikek hala erakusten dute. Istripu asko daude bertan, Nafarroako puntu beltzetako bat da. Pirinioetan elurra hasi bezain pronto jende andanak jotzen du

"BERIAIN NAFARROAKO MENDI ISTRIPUEN PUNTU BELTZETAKO BAT DA. ESTATISTIKEK HALA DIOTE"

Euskal Herriko Erdiguneko Martxaren aldarrikapena



Igandean Euskal Herriko Erdiguneko bildu zirenak, Martin Montañes eta Zigor Egia tartean. PEI0H22

Igandean Beriango Olibesarion dagoen Euskal Herriko Erdiguneko Martxan Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioko presidente Martin Montañesek eta Euskal Mendi Federazioko

presidente Zigor Egia idazki bat irakurri zuten. "Gaur, iragarri dezakegu Euskal Herriko Mendi Biltzarra / Unión Vasconavarra de Deportes de Montaña, dagoeneko, errealitate bat dela,

bere lehen urratsak ematen hasi baita. Estatutuak prestatzen ari gara, eta elkarte gisa formula juridiko bat izango du. 2023rako kirol proiektu bat eta kultur proiektu bat eskaintzen ari gara".

bertara eskiatzera, elur eskalada egitera, arraketekin ibiltzera... eta, jakina, istripuak izaten dira. Mendiko eskiak izugarri egin du gora; Pirinioetan jende gehiago dago eskiekin oinez baino.

Mendi istripuak gertatu direnean kirolari gehienak federatuta daudela pentsatzekoa da.

Gehienak bai, baina ez guztiak. Garai batean eskalatzaile asko ez ziren federatzen, uste zutelako bideak oso ongi ekipatuta zeudela eta istripuen arriskua ez zela oso handia. Istripuak gertatzen direnera arte. Nafarroan jende asko doa mendira, eta guztiak federatuko balira agian federatuen kopurua bikoiztuko genuke. Istripuen kasuan, federatuta badaude gure aseguruak berehala hasten dira lanean eta federaziotik behar bezalako laguntza ematen diogu kaltetutakoari eta bere familiarri. Federatuta ez badaude, ezin dugu ezer egin, ez dugu eskuduntzarik.

Belaguako aterpea berritzea eta zabaltzea oso garrantzitsua izan da. Zalantzarik gabe. Nafarroako mendizaleatasunarendako Belagua zabaltzea behar bat zen. Askok esaten ziguten ez zutela berriro zabalik ikustea espero, pena ema-

ten zuela erortzen ari zela ikusteak, eta horregatik mustutze ekitaldian mendizale asko hunkituta zeuden. Satisfazio handia da Belaguako aterpea zabalik eta martxan ikustea.

EUSKAL MENDIZALETASUNAREN GALA Gaur, ostirala, Altsasun ospatuko den Euskal Mendizaleatasunaren Gala festa polita izango da.

Bai, jende asko bilduko da. Javier Olo alkatearen ongi-etorriaren ondoren, Pyrenaica Sari ezagunak banatuko dira, eta omenaldiak izango dira: otsailean zendutako Jesus Mari Garisoain "Txumarra" Anaitasunako kidea, 2016an Écrins eskalatzen ari zela zendutako Axio Aranburu altsasuarra eta Joxemi Larrea. Ekitaldian Tarima Beltzak, Dantzariak eta dantzariak parte hartuko dute. Gero afaltzera bilduko gara, Zubeztia elkartean. Galako gonbidapenak Iortian jaso daitezke.

"NAFARROAKO MENDIZALEENDAKO BELAGUAKO ATERPEA ZABALTZEA BEHAR BAT ZEN"

Federazioan egiten ari zireten lanarekin kontentua al zaudete?

Guztia hobetu daiteke, baina federazioaren lan bolumena izugarrikoa da eta batzorde guztiei garrantzia ematen diogu: formazioari, segurtasunari, mendi ibilbideen sareari, eskaladari, mendi lasterketei... guztiei. Ustedut federazioari buelta eman diogula, eta jendea etortzen zaidanean lan handia egiten dugula esatera, satisfazio handia sentitzen dut. Lan asko eginda, aisialdiari ordu asko kenduta, baina badi-rudi ongi gabiltzala. Bestalde, federazioan emakumeak sartzeko erronka lortu dugu: egun lau daude, horietatik bi gazteak, eta horrek asko pozten nau. Kritika konstruktiboak onartzen ditut, eta hitz egiteko prest nago beti. **Sakana mendizaleendako paradisua al da?**

Nafarroako beste txokoak gutxietsi gabe, Sakana mendiaz gozatzeko toki ideal da. Eta erdiguneko Beriain dugu. Irurtzunerako bizi-tzera etortzerakoan mendiaren gertutasuna asko baloratu nuen. Etxetik aterata berehala nago Trinitatean, Txurregin, Beriainen, Agirin, Atan... Hemen bizi naiz, eta gozamina da.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Europako gerra kriminal honi, EZ!

Errusiako armada Ukrainan sartu zeneko eguna urrun gelditu zaigu dagoneko dagoeneko. Zutabegile orojakintsuek normalizatu digute gerra eta sinetsarazi nahi digute Errusia gaiztoa galbidean dela.

Denok bihurtu gaituzte partaide. Europar Batasuneko gobernuek erabakimenez hartu dituzte Errusiako ekonomiaren eta errusiar zibilen aurkako neurri sendoak. Oso ahots gutxi bakebidea aldarrikatuz. Gerrarako jarrera trinkoak nagusi, edo bakarrak. Argi dago "inteligentzia" edo oilarkeria militarra gailendu zaiola inteligentzia eta etika zibilari. Gerra hau irabazi bai hala ala bai, Errusia hondoratuta. Hori bai, pepelerdo ergelen modura, Estatu Batuen agintaritzaren eta interesen menpe jarrita. Nor ari da etekina ateratzen? Estatu Batuak, petrolio, zerealak eta abar esportatuz, eta armagintzan eta geostrategian urrats erraldoia emanez. Nor ari da galtzen? Ukraina Ukraina, eta Europa oro har. Ukraina Ukraina, gazteen hilotzak eta herrialdearen suntsiketa. Europa, larrialdi ekonomiko, inflazioa, gizarte multzo handiak larritasuneko egoeran, Errusia eta errusiarrekiko harremanetan erabateko haustura, eta AEBekiko menpekotasun osoa. Benetan, gerra honen alde gaude? Burua zeharo galdu al dugu? Gerra guztietan bezala, ahulenez

DENOK BIHURTU GAIUZTE PARTAIDE

Berriz, ekonomiako elite boteretsuenek etekinik potoloenak (petrolio, energia konpainiak, armagintza, merkatuarekin espekulazte...). Krisiak baliatzen dituzte zerrien modura gizentzeko.

Gerra ala diplomazia? Gazte hilak, milaka, ukrainarrak eta errusiarrek. Gerra krimenak, bi aldeetan. Desagertuak. Guraso desesperatuak. Heriotza, mendekua eta gorrotoa. "Inteligentzia" edo oilarkeria militarra, eta elite batzuen botere gose asekaizta (NATO eta haren sustatzaileak). Putin, Zelenski eta Biden kriminalak, Europar Batasuneko agintariak konplize. Gerra xaxatu ordez, ez al litzateke hobe konponketa diplomatikoetan indarrak jartzea? Gazteak bortizki hil beharrean, etxeko lasaitasun goxoa. Gorrotoa beharrean, errespetua. Errusiarrekin eta errusiarrekin eraiki nahi den muga gotor horren lekuan, harreman ekonomikoak eta bizikidetzak. "Inteligentzia" edo oilarkeria militarren ordez, gizatasunaren etika eta justizia soziala. Alegia, gatazketan egin ohi den bezala, bi aldeek onartuko luketen arbitraje neutro bat; Lugansk, Donest, Zaporijia eta Jersoni aterabide demokratiko bat emanda.

Aski da!!! Europako gerra kriminal honi, ez!!!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakzioara. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Eredu zaharkituak krisi ekosozialaren atarian

SAKANAKO GOI TENTSIOKO LINEEN AURKAKO PLATAFORMA

Teoria konspiranoikoetan erori gabe, esan beharra daukagu elite ekonomikoek, goi mailako politikariek eta erori gabe, esan beharra daukagu elite ekonomikoek, goi mailako politikariek ez diren proiektuak. Horren adibide ditugu Abiadura Handiko Trena, erraustegiak, urtegiak eta baita hainbat egitasmu erraldoi ere (Los Arcosek zirkuitua, Navarra Arena...). Guztion zergen bidez bilduriko dirutza onura pribatua xede duten proiektuetara bideratzen dute, eta horren ondorioz, herritarren bizi baldintzak hobetu beharrean, haien interesak nabarmen kaltetzen dituzte askotan.

Sakanan autopista elektrikoak jartzeko mehatxua

aspalditik dator. Hamabi urte igaro dira jada Red Eléctrica de España goi tentsioko linea gure bailaratik pasatzeko asmoa adierazi zuenetik. Bere azken proiektuan ere asmo bera adierazi du enpresak. Horretarako, gaur egun bertatik pasatzen den 220 kV-ko linea kendu eta 400 kV-ko linea berria Berriain eta Andia mendien magaletatik pasatuko dute. Hori gutxi balitz bezala, Forestalia enpresak Zaragozan jarri nahi dituen eguzki baratzen eta haize erroten argindarra guretik pasarazi nahi ditu REEn egitasmooaren ibilbide paraleloa eginez. Hortaz, sakandarrok bat ez, goi tentsioko bi linea jasan beharko genituzke.

Linea horiek kalte handiak ekarriko dizkigute, bai, baino makurrena da, linea horiek

sostengatzen duten ereduak ondorio larriagoak eragingo dituela, hala nola gaur egungo muturreko temperaturak, aldaketa klimatikoa eta krisi ekosoziala. Nazioarteko zientzialari adituek frogatu dutenez, gaur egungo ereduak (ekoizpen gune handiak, autopista elektriko kilometrikoak, energia kontsumo itzelak...) erabat zaharkiturik dago, eta beraz, beste eredu bat bultzatu beharko da aurrera egin nahi bada. Esate baterako, Antonio Turel zientzialari ospetsuak –SICeko kidea da— aspaldi ohartarazi du eredu horrek oso ondorio suntsigarriak ekarriko dituela. Bere azken adierazpenetan ere argi utzi du Europa oso egoera larrian dagoela. Berriz esango dugu: ez da konspirazioa, zientzia baizik.



OBJEKTIBOTIK

Txistor eguzki lorea Arbizun saridun

"Nafarroatik mundura" pintxo sortu zuten mundutik Nafarroara etorritako Zahar eta Patriciak. Arbizuko ekokanpinen langileek almendraz inguratutako orburua txistorrekin bete zuten eguzki lorearen burua egiteko eta arbelaren gainean, orburuaren saltsarekin eta oliba olioarekin hostoak marraztu zituzten.



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maite Iparragirre Astiz

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketatzaia@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



**Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua**



Altsasuko Zelandi eskola arigune izanen da aurtan. EUSKARALDIA

Egiteko asko dago aurretik

Horrela laburbildu daiteke hizkuntzaren erabileraren kale neurketak ibarreko Euskaraldia batzordeetan sortu duen sentipena. Zeinek bere herriaren argilunak ikusi ditu. Datuak aurtengo Euskaraldian izena emateko akuilu izatea espero dute

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Hizkuntzen kale erabileraren Sakanako neurketa eskutan dute Euskaraldiko herrietako batzordeetako kideek. Datuak ikusita, beraien herriei buruzko balorazioa egin dute GUAIXERako.

Irurtzungoek nabarmendu dutenez, herrian "euskararen erabilerak (%10,4) ia bi puntu egin ditu gora azken neurketatik. Egia da hobetzeko tarte handia zegoela, eta oraindik badagoela, baina igoera, txikia izanda ere, beti da pozgarria, batez ere beste leku batzuetan hala izan ez denean". **Lakuntzako**en iritziz "azken 20 urteko datuak ikusita, datuak (%34,3) ez dira nahi bezain onak. Baina erabilerak datuak mantendu direla ikusteak onerako harritu gaitu, beste pertzepzio bat genuelako; erabilerak baxuagoa izango zela uste genuen". Hala ere, "gaitasuna eta

erabilerak alderatuta erabilerak oso baxua izaten jarraitzen du". Lakuntzarrek gaineratu dutenez, "gure hizkuntzaren erabileraren beheranzko joeraren pertzepzio horrek euskararen aldeko jarrerak proaktiboak eragin ditu Lakuntzan". Eta horren adibide gisa jarri dituzte azken urteetan Euskaraldiaren, Korrika batzordearen inguruan eta "oso aipagarria den Lakuntzako euskalkia berreskuratzeko lantaldea. Horietan "lan egonkor eta polita egiten ari da eta, ondorioz, berriz ere, euskararen erabilerak indartzeko bultzada dago".

"ERABILERA DATUEKIN URDIAINGO EUSKARALDIKOAK 'HARRITUTA BAINO, TRISTETUTA' DAUDE"

Itxaropena, beraz, badute lakuntzarrek.

Etxarriarrek "pozik hartu genuen euskararen erabilerak herrian izan duen gorakada. Herriarren poztasuna ere jaso dugu". Ziurtatu dutenez, "datuak (%68,2) espero baino hobekoak dira". Herria UEMAko kide dela gogorarazi eta hausnarketa egin dute: "arnasguneetan euskararen erabilerak izan duen jaisteko joera aipatu izan da behin eta berriz. Etxarri arnagunea da, eta igoerak herrian euskararekin dugun lotura eta konpromiso sendoa adierazten duela iruditzen zaigu. Urteetako lanen emaitza da". Datuak publiko egin aurretik ere kezka bazutela aitortu dute, "arduratuta geunden kalean erdara asko entzuten genuelako. Lasaiago gelditu gara, datu objektibo horiek bidean ongi goazela esaten baitigute".

Urdiaingoek esan dutenez, ikerketak "oso errealitate gordina erakutsi digu (%36,8), herrian sumatzen dena, zoritxarrez". **Altsasuarrek**, berriz, "kolpea" jaso dute erabilerak datua (%7) ikusita, baina ez dituela harritu esan dute. "Duela 20 urtekoen parekoak dira, nahiz eta bitartean ezagutza handitu egin den". Aldi berean, gogorarazi dute Altsasu dela "ibarrean euskal hiztun kopuru handiena duen herria. Aurreko neurketako datuek erakusten dute euskara gehiagotan erabiltzeko gai direla altsasuarrek. Horrekin geldituko gara. Eta horretarako lan egingen dugu". Azkenik, **Olatzagutikoek** datuak ikusita (%7) euskararen erabilerak herrian "nahikoa gorakada" izan duela nabarmendu dute, "ez genuen hainbestekoa espero". Bazekiten herrian euskara "lehen baino gehiago entzuten" dela, arrazoia ere identifikatua dute: "gehienbat guraso gazte eta haurren artean".

Beste datuez

Datuekin urdindarrak "harrituta baino, tristetuta" daudela adierazi dute. "Duela urte batzuetatik hona gaztelaniaren erabilerak handitzen ikusi dugu, penaz; gordinago esanda, euskararen erabilerak gutxitzen joan da, nabarmen". Lakuntzarrek baieztatu dute "topikoak ez direla hain topiko: haurrekin harremanak adin tarte ezberdinetako hizlariak euskara gehiago erabiltzen dute, baina adin tarte berekoen artean ez da hori joera". Horri lotuta, etxarriarrek nabarmendu dutenez, "adin tarte guztietan erabilerak txikiagoa da adinkideekin elkartzeko gaitasun nahastutako elkarrizketetan baino. Hor kokatzen dira lagun arteko elkarrizketak. Euskara gutxiago erabiltzen da, beraz, lagun artean gaudenean". Etxarrikoek helduen adin tarte bitan banatzearen ondorioei ere erreparatu diete: "agerian gelditu da heldu gazteen euskararen erabilerak heldu nagusien baino nabarmen altuagoa dela". Etxarriarren iritziz, neurketak agerian utzi du "gure hutsuneak non

EZAGUTZA MAILA OSO ALTUA IZANIK, LAKUNTZARREK ERABILERAN ERAGIN NAHI DUTE

dauden". Hurrengo ikerketarako eskaera ere egin dute etxarriarrek: "haur txiki eta koxkorren arteko erabilerak datuak ezagutzea, inpresioa baitugu haurrak gero eta lehenago hasten direla gaztelaniaz".

Altsasuarrek ere heldu gazteen adin tartearen erabilerak datuari erreparatu diote. Haiek eta haurrek dute erabilerak maila handiena. Altsasun erabilerak gora egiteko oinarri horrek aukera ematen duela uste dute. Olatzagutiko Euskaraldiko batzordetik ondorioa atera dute: "garbi dago, gazteengana iritsi behar gara". Azkenik, ikerketak agerian utzi zuen Irurtzunen elkarrizketen %8,9 beste hizkuntzetan zela. Euskaraldia batzordeko kideendako "kopuru handia da. Alde horretatik, Sakanan beste inon baino aniztasun handiagoa dago Irurtzunen". Horregatik, "kanpotik etorritakoak euskarara erakartzeko erronka" ere izango dutela ziurtatu dute.

Aurrera begira

Lakuntzan "erronka polita" dutela diote, "ezagutza maila oso altua da, eta horrek erabileraren eragitea posible egiten du". Garrantzitsutzat jo dute "haur eta gazteen erabilerak indartzea eta mantentzea. Eta, eredu izateko, helduen arteko hizkuntza ohiturak ere eragitea ahaztu gabe". Etxarriarrek "euskara hauskorra" dela eta "egoera oso zaillean" dagoela ohartarazi eta, horregatik, "zaindu eta indartzeko asmoekin lanean jarraituko" dute. Herrian hainbat egitasmo martxan jartzekoak direla aurreratu dute. Eta haien leloa gogorarazi dute: 365 egun euskaraz.

Olatziarrek Euskaraldia aldatzeko lehen pausotzat dute. Ondorenean lanean jarraitzeko asmoa adierazi dute. Antzeko Irurtzunen: "ea Euskaraldiak oraingo datuak gehiago hobetzen laguntzen digun". Altsasuarrek inurri lanean segituko dute eta egoerari buelta emateko Euskaraldian parte hartzerak deitu dute, "eskaintzen duen testuinguruak hizkuntza ohiturak benetan aldatzen laguntzen duelako". Urdindarrek esan dutenez, "euskara maite dugunok, euskaraz bizitzen jarraitu behar dugu, erabilerak normalizatzen, tartean erdaldunak daudenean ere". Eta galdera egin dute: "nola konbentzitu euskarari garrantzirik ematen ez duena?"



Edur Garcia Oraa, David Oroz Alonso, Oihana Gallo San Roman eta Dani Echavarri Manjon programaren aurkezpenean.

Transexualitatea ikustarazteko egitaraua: Urri Trans

Sakanako Mankomunitatearen Berdintasun Zerbitzuak eta Kattalingune Nafarroako Gobernuo LGTBI+ zerbitzuak antolatu dute zikloa, 5 udalen laguntzaz. Kattalingune zerbitzua ostegunero, 11:00etatik 19:00etara, Irurtzungo kultur etxean dago

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Lastailean ospatuko diren zenbait efemeride baliatuta, transexualitateari buruzko programazioa prestatu du Sakanako Mankomunitatearen Berdintasun Zerbitzuak. Aurreko urteetan, *Askotariko Sakanan aniztasuna erein* zikloaren baitan aurkezpenak eta hitzaldiak antolatu izan ditu zerbitzuak eta aurten transexualitatea lotu dute harekin. Horregatik, leloari *Urri Trans* hitzak gehitu dizkio. Oihana Gallo San Roman teknikariak azaldu duenez, "transexualita-

tearekin lotutako ikus-entzunezkoak, aurkezpenak eta hitzaldiak antolatu ditugu".

Gallok azaldu duenez, "urteetako aldarrikapen sozialen eta zientzia ikerketen ondoren, ondorioztatu da pertsonen identitatea ez dutela genitalek zehazten". Beraz, transexualak dira "jaiotzean beren sexu identitatearekin bat ez datorren sexu bat esleitzen zaien pertsonak. Askotan genitalei esleitzen diegun sexu horretara jotzen dugu. Horregatik, pertsona bat emakumezkoa, gizonezkoa edo beste

identitate bat duen, norbaiten bizipenaz ziur egoteko, modu bakarra berari galdetzea da".

Berdintasun teknikariak argitu duenez, "duela lau urte transexualitatea Buruko Nahasteen Diagnostiko eta Estatistikako Eskuliburutik atera zen eta hori ospatuko dugu. Hala ere, gaur egun gizartearen parte handi batek transexualitatea bitxikeria edo anomalia gisa ulertzen jarraitzen du. Horregatik, identitate ezhegemonikoen despatologizazio oso eta errearen alde lan egiten ari gara".

Bertako ekoizpena

Mank-en Berdintasun eta Jarduera Fisiko eta Kirol zerbitzuek Kattalingunerekin batera egin duten dokumentala mustuko da zikloan: LGTBI+ fobia kirolean, errealitate bat da. Gallok azaldu duenez, "Sakanako kirolean LGTBI+ fobiaren inguruko diagnostia egin zuten hiru zerbitzuek joan den urtean: datuak eta ezagutzeko, LGTBI+ gai kiroloan nola dagoen eta ezagutzeko". Emaitzak eskutan, ondorioak atera zituzten eta egoki ikusi zuten horien berri bideo motz baten bidez ematea. "Ondorioez aparte, Sakanako kirolari ezagun batzuk ere agertzen dira bideoan. Haren bidez islatu nahi dugu kirolean ere aniztasuna nahi dugula, kirola ere espazio seguru bat izatea nahi dugula, eta, nola ez, parekidea", azaldu du teknikariak. Javier Galeano altsasuarrak zuzendu du ikus-entzunezkoa. Mustutzea Olatzagutiko kultur etxean izanen da lastailaren 28an.

Bestalde, adingabe transexualen elkarteak, Naizen-ek, aurten ere presentzia izanen du zikloan. Hark ekoiztutako Ekai Lersundi gazte ondarrutarrari buruzko dokumentala ikusgai izanen delako, eta elkarteko kide diren bi familiek haien lekukotza emanen dutelako. Gallok azaldu duenez, Naizen elkarteak Sakanan ere baditu kideak.

Kattalingune

Nafarroako Gobernuaren LGTBI+ informazio eta arretarako zerbitzu publikoa da, sexologia eta generoan espezializatutako langileek artatua. 2020ko agorrilaren 6tik eskaintzen du zerbitzua Sakanan. "Irurtzunen ipar-mendebaldeko herritarrei ematen die zerbitzua ematen du" argitu du Gallok. Gaineratu duenez, hara jo dezakete "sakandarrek, profesionalek, gaiarekin zerikusia duten profesionalek, etxean gaiari lotutako bizipen bat daukaten herritarrek, LGTBI+ taldeak, kolektiboak, kirol edo kultur taldeak... harrera, informazioa, arreta, sexologia arreta, lege arreta eta orientazioa es-

Egitaraua

Lastailak 14, ostirala

• **18:00** *De vuelta en casa* dokumentalaren emanaldia, Angel M. Chivite zuzendaria bertan dela. Kattalingune Nafarroako Gobernuo LGTBI+ Zerbitzuaren aurkezpena. Uharte Arakil udaletxeko ganboikoan.

Lastailak 20, osteguna

• **18:00** Ander Oyarzabal idazleak *Sentimientos encontrados* liburua aurkeztuko du. Ziordiko liburutegian.

Lastailak 21, ostirala

• **19:00** *Mi pequeño gran samurai* dokumentala eta Naizen-eko (Adingabe transexualen elkarte) familien testigantzak. Lakuntzako kultur etxean.

Lastailak 28, ostirala

• **18:00** Mank-en *LGTBI+ fobia kirolean, errealitate bat da* dokumentalaren aurkezpena. Olatzagutiko kultur etxean.

Lastailak 30, igandea

• **17:00** Eidabe konpainiaren *Mari, Meri eta Lari* haurrendako antzerkia (3 urtetatik aurrera). Etxarri Aranazko kultur etxean.

kaintzen ditu". Azaldu duenez, Edur Garcia Oraa teknikariak du zerbitzuaren ardura.

Ostegunetan 11:00etatik 19:00etara egoten da Irurtzungo kultur etxean. Baina talde, elkarte, ikastetxe, udal edo besteren batek arreta, aholkularitza edo informazioa jaso nahi eta ostegunetan joan ezin duenak *iparmendebaldea@kattalingune.org* e-posta helbidera idatzi dezake. Urri Trans egitarauaren barruan, Kattalingunek Uharte Arakilen aurkeztuko du bere burua gaur.



EGOKI
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





Aberri Barandalla Fernandino abeltegiairearen sarreran. ARTXIBOA

"Egoerak zama ekonomikoa eta morala dauka"

ABERRI BARANDALLA FERNANDINO ABELTZAINA

Jeingenekoak esnetarako eta haragitarako behiak ditu eta esnea eraldatzen du gainera. Uda lehorra eta prezioen garestitzeari aurre egin beharrean daude

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ Egoera zaila da da sektore guztietan. Aldapan gora goazela gaina ikusten ez den uean gaudela dio Barandallak. Pedalei eragiten segitzen du, bidea egiten. **Mendira noiz igo zenituzten?**

Apiril bukaeran igo genituen eta normalean agorrrilaren akaberaraino han egoten dira. Baina garilaren erdian batzuk, beren kabuz, jaisten hasi ziren, janik ez zutelako. Garilaren akaberrako denak jaitzi genituen. Janaren eskasiarekin batera ur falta. Sekula lehortuta ezagutu ez ditugun iturriak lehortu egin dira. Behiak tokiz aldatzen ziren, ur bila. Elkarrekin ibili eta betiko larre bideetan ibili beharrean asko mugitu dira. Gehiago da,

bat momentuz ez dugu opatu. Besteak, behean. Daukagun sistemarengatik, robotengatik eta halakoengatik, esnea jezten ari direnak barruan ibiltzen dira. Besteak, udan, normalean, kanpoan. Zegoen jan pixka jateko atera, baina jana jarriz ibili gara. **Neguko bazka jaso duzue?**

Arazorik handiena hortxe dugu: neguan ez gara sartu eta, dagoneko, neguko janak jaten ari gara. Biltegiara askoz gutxiago sartu

"AZKENERAKO, DESGASTE HANDIA DA. PSIKOLOGIKOKI, EZJAKINTASUNEAN ZAUELAKO"

dugu. Belar lehorra oso gutxi etorri da; urte normal batekin alderatuta, erdia baino gutxiago. Egoerak behartuta artoan sekula baino gehiago gastatu dugu eta sekula baino gutxiago jaso dugu, erdia ere ez. Aurrera begira, arazoak ziur!

Orain euria eginen balu, berandu?

Bai. Asko bezala, pixka bat kanpoan izan, neguari koxka txiki bat kentzeko. Negurako janak biltegiaren daude. Orain ahal den hobekien administratzerara. Erosi behar dena, ahal baldin bada. Zeren hor ere nahikoa eskasia dago. Aparte, izutzeko moduko prezioak daude.

Umatzeko arazorik izan dute?

Gora ernalduta igotzen dira. Han umatu ez daitezela saiatzen gara,

edozein arazo txikik handiagoa ekar dezakeelako. Bestetik, azien da ongi baldin badago dena askoz hobe joaten da. Miseria eta gosea pasatzen hasten bada, ugalkortasunean galtzen da, abortuak errazago egon daitezke, jana bilatzera toki txarretara sartzen dira... Horregatik, garaiz jaitzi genituen. Ondoren zeharkako edo zuzenak diren ondorioak nabaritu dira jan eta maneiu aldatetengatik.

Energia ere garestitu da

Argindarra bikoiztu baino gehiago egin zaigu. Gasolioa ere badakigu nola dagoen. Den-dena nola joan den. Zer desoreka dagoen. Zenbat igo den burdina, piezak eskatu eta jasotzeko lanak... Hori guztia gehitzen duzu eta, azkenerako, desgaste handia da. Psikologikoki, ezjakintasunean zaudelako: Non geldituko da? Noraino joanen da? Zer eginen du? Aurrera segitu beharra dago. Hau ez da torlojuak egiteko fabrika bat, errentagarria izan arte pertsiana itxi daitekeena. Guk egunero segitu behar dugu eta zama ekonomikoa eta morala dauka. Ni botila beti beteta ikusten duten horietako bat naiz. Baina orain hori ikustea kostatzen da. Frenete asko eta gauzak asko zailtzen ari direla ikusten duzulako.

Kooperatiba baten parte izateak laguntzen du?

Esnearekin Kaiku kooperatiban gaude. Guk eraldatzen ez dugun esnea Kaikuri ematen diogu. Haragian Nafarroako Aratxea jatorri izendapenean eta, aparte, kooperatiban. Honen guztiaren arduradunak opatzea ez da erraza. Haien ere ahal duten guztia egiten dute, ikusten dutelako hau luze badao abeltzaintza jaitzi eta jaitzi joanen dela. Belaualdi aldatetan kalte handia egin dezakeela iruditzen zait. Haien laguntzarik ez. Ezta administrazioaren aldetik ere. Jende askori iruditzen zaio dirulaguntza batzuk kobratu ditugulako salbatuta gaudela. Apurrak. Apur guztiak hartzeko gaude. Baina apurrak ez dira aurrera begirako konponbidea. Ematen duen oxigenoa hilabete pare batean

"HORTZAK ESTUTU ETA AUERRERA SEGI BEHARRA DAUKAGU URTE HOBEEN ESPEROAN"

bukatzen da. Ni ez naiz dirulaguntzen oso aldekoa izaten; zure esku ez dagoen zerbaite da. Beti eskean gaudela ematen du. Produktua bera baloratu behar da. Kostuak eta guztia pixka bat bere neurrian, kontrolatu beharko litzateke. Ezin da energiaren moduko igoerarik egon. Zeren, azkenerako, gu gaizki, baina guretako garrantzitsuenak diren gure bezeroak zuzeneko ondorioak pagatzen dituzte. Sakoneko aldaketak egiteko pauso batzuk eman nahi genituzke. Ez da erraza, sektore guztiak gaudelako... Gureari lehorteak kalte bikoitza egin dio. Hori ere hausnartzeko gai zabal eta interesgarria da.

Esnea, jogurtak eta gazta egin eta saltzen dituzue. Laguntzen du?

Beharbada horregatik gara berritarrak eta hortik bizi gara. Baina, orokorrean, gurea bezala, beste sektore guztiak hankaz gora daudela ikusten dut. Esaterako, astero prezio igoerak ditugu. Guretako hori oso-oso desatsegina da, eta deserosoa prezioak igotzen joan beharra. Azkenerako, behar adina ez ditugu igotzen. Eta hori gutxi balitz bezala, hornidura arazoak daude. Esate baterako, jogurten kristalezko ontziekin kristoren arazoak izan ditugu. Arazoak gehitzen joaten zara eta ezjakintasuna eta beldurra sortzen dituzte. Egia da eraldaketa zure esku dagoela, baina topea nonbait ere badago: noraino igo behar dira prezioak? Zeren egoera honek segitzen badu kontsumitzaileek erosahalmena galdu egingen dute. Mamu hori ere hor dago.

Igandean Aitsasuko azokan saltzen?

Bai. Sakanaren parte gara, Sakanako ekoizle, Sakanako bezero pila daukagu. Ibarreko azoketan egon behar dugu. Normalean nahikoa salmenta zuzena dugu, denak direlako denda txikiak, partikularrik... Bitartekaririk ez dugu. Oso harreman estua da. Azoketan oraindik ere zuzenagoa da. Jendea gelditzen da eta galdetzen du. Horiek oso aberasgarriak dira. Horiek aurrera begira bultzada ematen dizute.

Dena utzi, eta aurrera?

Urte zaila da. Hortzak estutu eta aurrera segi beharra daukagu urte hobearen esperoan. Sektore oso garrantzitsua gara: elikaduraren eta ingurumenaren parte gara, kalitatezko produktuak egiten ditugu, osasunarekin zerikusia duena... Aurrera egin beharra dugu.

Alfredo Alvaro Igoa OLATZAGUTIA

Abeltzainak lehortearen eta prezioen garestitzearen ondorioei aurre egiteko neurri bat hartu du dagoeneko, ez daki betiko izanen den.

Mendira eraman zenituzten?

Maiatz akaberarakoazienda guztia goian dugu, irailera arte. Batzuetan, lastaila erdialderaino. Aurten agorrilaren erdialdean jaitsi dugu, korrika eta presaka. Zenbait aska eta iturburu lehortsu eta pottoak dituzten behor batzuk sufritzen hasi zirelako.

Alde gehiago?

Beste urte batzuetan mendira igo eta lasaiago zaude. Aurten mendian izan diren bitartean uneoro kontrolatzen egon behar izan dugu. Pentsua edo dena delakoa eraman diegu, guztiak elkarrekin mantentzeko. Bestela, mugitu eta gero opatzeko kontuak. Etxean ura eta bazka eman behar izan diegu. Dagoeneko neguko jaten ari dira.

Neguko bazkak bildu dituzue?

Bizpahiru urte dira artorik jarri ez dugula. Basurdeak silora gerturatu eta haiek zabalduak gaixotasunekin arazoak izan genituen: behiren batek positibo eman zuen. Aurten ez dugu artorik erein, salbatu gara. Urte asko daramagu eta, egoera okerrera doa. Horregatik murrizketak eta beste egitea erabaki dugu. Baina belarraren lehen mozketa kasik behorrek jan zuten umatzean. Une horretan begi bistan izatea gustatzen zaigu, okulutik gertu, putreekin ere arazoak izaten baititugu. Mendira igoztean bigarren belar mozketa egiteko aukera izaten dugu. Aurtengo hori oso eskasa izan zen, maitezaren ondoren apenas ateratu zen. Jaso duguna oso justua da. Silo zerbait egin genuen, larreen lehen mozketatik sobratu zenarekin. Baina lehorraren laurdena dugu, ezer ez. Orain zain egotera, eta pittaka ahal dena murrizten. Ez dago erosteko. Dagoen pixka ikaragarri garesti egonen da.

Berdin bi aziendekin?

Saiatzen gara batzuek eta besteek ezer ez faltan izatea. Behorrek ditugun sakandar askok Zaragozako Longas herrian baso oso handia hartua dugu, behorrek hara eramaten ditugu han negua pasa dezaten. Hura lehorragoa da, eta hobe jasaten dute negua. Hura ere ez da beste urteetakoa izanen, negu hau justuago pasako dute behorrek.

Mendian ura eskas, ibarrean?

"Orain gaude larri. Laguntzak oraintxe behar genituzke"

ERKUDEN GABARI SATRUSTEGI ABELTZAINA

Olaztiarrak zaldi eta behi azienda du. Altsasuko ferietako zaldi lehiaketan Auritz arrazako bost buru aurkeztuko ditu



Erkuden Gabari Satrustegi. UTZITAKOA

Sareko ura eman diegu. Zisternak sekula ez bezala bete ditugu. Egunero, askoz gehiago edaten zutelako. Adi ibili ginen.

Orain euria gozo eginen balu?

Berandu. Zisternak ez jartzeko.

Umatuko dira?

Behorrek ibarrean umatu ondoren igo genituen. Haiekin batera, lehenik kozkorren diren pottoak igozteko, eta gazteagoak direnak bigarren txandan. Ongi joanen den ziurtasuna izateko. Behiak ernai daudela ikustean igozteko ditugu. Baina urik edaten ez badute, gaizki.

Energia ere garestitu da.

Ematen dituzun bueltekin gasolio gastu garrantzitsua da. Gai nontzeko guztiari batzen zaiona.

Haragiaren zuzeneko salmenta egiten duzu, ezta?

Gaia zaila da. Baina bitartekariak daude: hiltegira eraman, haragia prestatu behar dizute (xerrak moztu, hutsean bilgarriratu...), banaketa. Ahalegina eta ardura eskatzen ditu. Horrela saldutako haragiari ezin diozu etekin guztia ateratu. Hala ere, harakin bati edo besteren bati saltzea baino hobe da. Egoera normalean zuzeneko salmentak aurrera egiten

"EZIN DUGU GURE GAIN HARTU GAUZENGATIK BIKOITZA ORDAINTZEA. EZ DU EMATEN"

laguntzen du. Pixka bat saltzen dugu familia lagun eta aldamekoen artean. Haragitarako txekorrek loditzen ditugu. Baina iritsi da momentu bat ikusi duguna horrela ezin dugula segitu. Ezin dugu gure gain hartu gauzengatik bikoitza ordaintzea. Nahiz eta pixka bat igo, ez dugu irabazi margenik. Astelehenean erabaki nuen jakinaraziko niela: hauek azken txekorrek dira. Txikitik saldu beharko ditugu. Ditugun txekor txikiak titia kentzean salduko ditugu. Bestela, animalia loditzeko beharrezkoa den dirua guk geuk aurreratu beharko genuke. Normalean, urtebeterekin saltzen ditugu. Ezin dugu pentsua ekartzen segi. Eta kanalaren eta haragiaren prezioak ez dira igozteko. Penagarria eta tristea da. Momentuz horrela jarraitu, dagoenarekin aurrera egiten ahalegindu. Ea aurtengoa pasatzen dugun eta datorrenaren zain geldituko gara.

Eta ernai dauden behiekin, zer?

Neguan umatuko dira. Ongi joatea espero dugu. Egoeraren araberako erabakiko dugu zer egin.

Dirulaguntzak?

Laguntzak eskasak izateaz aparte pixka bat berandu kobratzen ditugu. Egoera larrian orain baikaude. Bazka eta bestelako eskasia izanen dugu urte akaberan, eta erosteko oso garesti ordaindu behar duzu. Eta dirulaguntza heldu den urtean kobratu behar baduzu, dirua aurreratzen urte bat egon behar duzu. Momentu bat iritsi daiteke dirurik ez duzuna. Ukrainako gerragatik emandako laguntza orain kobratu dugu. Tobera pentsuz betetzea joan den urtetan baino 1.700 euro gehiago kostatzen zait. Urtean bostetan beteko dut. Aurten 1.200 euroko dirulaguntza eman didate. Ongi etorria, jakina. Baina horrekin ez dut tobera erdia ere betetzen. Abeltzainak laguntzeko formula eta modu gehiago badaude, dirulaguntzen zain urte bat izatea baino. Gizarte segurantzaren beste nonbaitetik etor daitezkeen laguntzak...

Guztia uzteko pentsamendurik?

17 urtetako ahalegina, dedikazioa eta aurrera egiteko nahia da. Baina egoera honetan gogoak kentzen joaten da. 2005ean haragitarako behiekin hasi ginen. Orain behiak baino behor gehiago ditugu. Orain zaldi aziendarena pixka bat hobe dago, gainera, ez da hain lotua. Beharbada hortik joko dugu. Momentuz, zain. Gero gerokoak.

Sindikatu, alderdi eta eragileak osasun publikoaren alde

Sakanako Osasun Publikoaren aldeko Plataformako kideen iritziz, lehen arretako osasun zerbitzua "arriku larrian" dago. Horregatik, giza eta material baliabideez egoki hornituta egotea aldarrikatzen ari da. Plataformaren osasun sistema publiko, duina, kalitatezkoa eta unibertsala eratze eta mantentzeko eskaerekin bat egin dute Altsasuko Feministak, Errafailak, Bilgune Feminista, ELA, LAB, UGT, EH Bildu, Sortu, IU, Pensionistak Martxan, Adavan eta Altsasuko Peñak, eta Burunda mendebaldeko osasun kontseiluko lehendakari Javier Paz Miño.

Parlamentuak eratzear da Osasunari buruzko Foru Lege berria eginen duen batzordea. Sinatzailen iritziz, "asko dago babesteko eta hobetzeko. Izan ere, sistema publikoa indartu beharrean zerbitzuak azpikontratatzan ari dira (kontsultak, tratamenduak, probak, ebakuntzak...) Horrela, mutua, ospitale pribatu, mediku aseguru eta korporazio handien esku bukatzen du diru publikoak". Eta horrek dakarren arriskuaz gaztigatu dute: "etorkizunean osasun sistema publikorik gabeko herrialdeen antzera egon gaitzke. Aberatsak artatuko dituzte, ordaintzen dutelako, eta gainontzekoei arreta minimoa eta masifikatua emango digute".

Euskara ikasleendako ere ona litzateke eskaintza zabaltzea

Kultura Euskaraz, Ainguratu Gurak Altsasuko aisialdi eta kultur eskaintza euskalduntzearen aldeko testigantzak jasotzen ari da. Azkenekoa, herrira iritsi zenean bi hizkuntza ofizialak ez zekizkien pertsona batena da. Gaztelania "hemen bizitzeko ikastea beharrezkotzat" jo zuen eta "arazorik gabe" ikasi zuen 4 hilabetez; 6 hitz egiten hasteko eta urtebetean %100 gaztelaniaz bizitzeko gai izan zen.

Hemengo lagun erdaldunek seme-alabak euskarazko ereduera eramaten zituztela ikusi zuen. "Haiek konbentzitu ninduten nire alaba D ereduari matrikulatzeko". Alabaren bidez izan zuen euskararekin lehen harremana. Gainera, lan bila hasi eta euskararen B1 maila eskatzen zioten. Alaba hizketan hasi zenean hasi zen euskara ikasten. "6 urte ikasten; 4. urtean hasi nintzen kalean hitz egiten. 10 urte pasa dira ikasten hasi nintzenetik, eta soilik %40ean bizi naiteke euskaraz". Mintzakideei esker hasi zen euskaraz bizitzen, "gaur egun lanean saiatzen naiz, eta ahal dudan guztietan euskaraz aritzen naiz". Horregatik, eskatu du eskaintza handitzea, "horrek bidea erraztuko digulako euskaldun berrioi; bai euskara ikasteko baita euskaraz bizitzeko ere".

Sakanako lehen museoa zabalik dago Aralarren

Santutegiaren historia eta ondarearen berri ematen du. Astelehenetan izan ezik, egunero dago zabalik, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Neguan iluntzean itxiko da eta udan 19:00etan. Orduetegi berean bisita daiteke santutegia

UHARTE ARAKIL

Administrazioaren baimenak jaso ondoren, igandean zabaldu zituen ateak Aralarako santutegiaren mendebaldean dagoen museoak. Deierri edo Lakuntzetxe eraikina berriro ondoren, haren beheko solairuan dago kokatuta museoa. Eraikinaren egokitze lanetan 90.000 euro gastatu dituzte santutegiko ardura-dunek. Horietatik 65.000 euro Aralarako ainguruaren herriz herriko ibilbidean eta santutegian bertan jasotako limosna bidez ordaindu dituzte.

Museoaren edukiari dagokionez, handik pasatzen denak erlijio eraikinaren historia ezagutzeko aukera izanen du ukimen pantaila batean. Beste ukimen pantaila batean, berriz, sekula baino gertuagotik eta xehetasun gehiagorekin ikus daiteke santutegiko erretaula. Horretarako, nahikoa da pantailan zoom egitea. Aralarako ainguruaren irudiaren bilakaera ezagutzeko aukera ere ematen du museoak.

Horretaz aparte, 1.100 urtearen inguruan Jerusalemara peleginazioan joandako neska batek Aralarako santutegiari buruzko bere oroitzapenak kontatzen ditu ikus-entzunezko batean. Azkenik, kontinenteko erromesaldien ibilbideak agertzen dira Europako mapa batean, baita zazpi santutegik osatzen duten San Migelen lerro sakratua edo San Migelen ezpata. Museorako sarrera 3 eurokoa da helduendako eta euro baka-rrekoa haurrendako.

Lanak

Aralarako santutegiko arduradunen estrategia planaren lehen fasea izan da Deierri edo Lakuntzetxe eraikina zaharberritzea. Lanek 400.000 euroko aurrekontua izan dute. Haietatik 320.000 euro ekarpen edo mezenasgoaren bidez eskuratu dituzte eta gaitzetzeko 80.000k elizbarrutiak



Ukimen pantailatan santutegiaren historia irakurtzen eta erretaula ikusten.

SANTUTEGIRAKO PASABIDEAN HARRERA, DENDA ETA KOMUNAK EGINEN DITUZTE ORAIN

jarri ditu. Nartex edo eliz aurrearen teilatuaren konponketa ere elizbarrutiak ordaindu du.

Hurrengo fasean, santutegiaren sarrerako pasabidean, sartu eta berehala ezkerretara, harrera, denda eta komunak eginen dituzte gaur egun erabiltzen ez den espazio batean. Lanek urte bukaera bitartean egin nahi dituzte. Aurrekontuari aurre egiteko jendeak ekarpenak egin ditzake. Nafarroako Gobernuaren Mezenasgo Legearen baitan, lanek Mecna zigilua dute eta ekarpenak egiten dutenek ematen duten diruaren arabera hobaria izanen dute errenta aitortpenean (%80koa 150 eurora arte ematen dutenek, hortik gora ematen dutenek %40koa). Enpresek ere kenkaria izanen dute sozietateen gaineko zergaren aitortpenean. Dirua ES11 3008 0045 9840 7184 5517

kontu korrantean sartu beharko da, "Aralarako santutegia Mezenasgo" kontzeptua jarritz. Lanek 120.000 euroko aurrekontua dute.

Aralarako arduradunen estrategia planaren hirugarren fasea da ostatua berriro zabaltzea. 30 bat logela ditu. Horrekin batera taberna eta jatetxearen azpian gazteendako aterpe bat zabaldu nahi dute. Zaharberritze eta egokitze lan horiek heldu den urtean hasi nahi dituzte.

Oporrak

Heldu den astelehenetik azaroaren 8ra arte, Aralarako santutegi ondoko taberna-jatetxea itxita egonen da langileen oporregatik. Dena den, santutegiaren eta museoaren orduetegi berean aterpea eta komunak zabalik egonen dira.

Elizkizunak

Deun Mikel Goiainguruaren Kofradiak jakinarazi duenez, Domu Santu egunean, azaroaren lehen asteartearrekin, 12:30ean izanen da elizkizuna. Herenegun, Pilarre egunean ere, elizkizuna izan zen santutegian. Kofradiatik gogorarazi dutenez, igandero, 12:30ean, meza dago santutegian.

DUELA 25 URTE...



Autobia azpiko pasabide eske

A-1 autobia egiteko lanak oso aurreratuta zeuden Ziordia parean. Lanak egin aurretik, Nafarroako Gobernuak udalak aurkeztutako alegazioa onartu eta lurpeko pasabide bat egitea egoki jo zuen. Baina lanak bukatzeaz zeudela, gobernuak ez zuen pasabiderik egin nahi izan. Francisco Javier Ansuategi Gobernadore Zibilak bere burua eskaini zuen udalaren eta Jose Ignacio Palacios kontseilariaren artean bitartekaritza lanak egiteko. Ziordiarrek hainbat mobilizazio egin zituzten, esate baterako, errepidea moztu eta manifestazioa egin zuten.

SAKANAKO erraldoiak ezagutzen



↳ Momotxorroa

Urtea: 2022

Neurriak: 3,96 m 54,75 kg

Altsasuko herri inauterietako pertsonaia nagusia da. Izaki mitologiko bat da, erdi animalia erdi gizakia. Buruan saski bat, ipurukoa, zezen adarrak eta narru bat daramatza, gerrian gerrikoa eta fareak eta eskuan sardea. Pertsonaia basatia da, eta erraldoia oihu egiten dago; lehenengo aldia da erraldoi bat aho zabalik agertzen dela, behintzat, egile hauek egin. Aitor Callejak eta Mikel Erasok sortu dute. Ongi gorde ahal izateko, saski eta adarrak gorputzetik desmontatzen dira.

↳ Sorgina

Urtea: 2022

Neurriak: 3,46 m 43,75 kg

Altsasuko herri inauterietako pertsonaia da, baita Euskal Herriko historian eta mitologian pertsonaia oso ezaguna ere. Edabeak egiten zituzten, emaginak ziren, erizainak... Horregatik inkisizioak jazarri zituen beraien irudiaren gainean kondaira beltza jarritz. Buruan zapi bat darama eta eskuan erratza. Aitor Callejak eta Mikel Erasok sortu dute.



FESTAK



ARBIZU 12. Txistor Egunean 2.200 pintxo inguru dastatu ziren eta jendetza bildu zen. Goizean, Nafarroako Trikitixa Eskolen arteko jaialdian 90 trikitilari inguruk parte hartu zuten. Txistor pintxo lehiaketan Arbizuko kanpineko Zahra eta Patricia sukaldariak prestatutako "Nafarroatik mundura" pintxoak irabazi zuten.

ALTSASU FERIAK

URRIAK 14 Ostirala

18:00 Etxafuegoa eta haurrendako jolasak, Foru plazan.

19:00 XXVI. Euskal

Mendizaletasunaren Gala, Iortia kultur gunean.

Euskal Mendizale Federazioak eta Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatuta.

19:00 Erremonte jaialdia, Burunda frontoian.

Oriamendik antolatuta.

19:30 Txokolatada, Foru plazan.

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

19:30 Sakanako XI. Arte Azokaren mustutze ekitaldia DJ Txen-ekin.

Artebidek antolatuta.

URRIAK 15 Larunbata

10:30 XIV. Onddo Lasterketa: Ibilaldia oinez, Foru plazatik.

Dantzaleku Sakana Klubak antolatuta.

11:00 XIV. Onddo Lasterketa, Foru plazatik.

Dantzaleku Sakana Klubak antolatuta.

11:30 Erraldoi eta buruhandien kalejira, Altsasuko eta Etxarri Ananazko txistulariekin, Intxostiapuntatik.

12:00 Altsasuko ferietako ikastetxeen arteko XLII. Krosa, Foru plazatik.

Dantzaleku Sakana Klubak antolatuta.

12:30 Altsasuko Musika eta Dantza udal eskolaren fanfarrearen kalejira.

15:00 Peñen bazkaria, Zelandi frontoian.

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

16:30 Peñen kafea eta Maillot banaketa, Zelandi frontoian.

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

16:30 Pirinioetako Artzakurren XVI. Topaketa, Baratzekobide plazan.

Espainiako Pirinioetako Artzakurren Klubak antolatuta.

Betiko Altsasuko ferien asteburua

Gaur, urriak 14, ostirala, piztuko dute ferien ospakizunei hasiera emanen dien suziria.

Pandemiagatik bi urteko etenaren ondoren, ohiko feriak ospatuko dituzte Altsasun, urriaren 14tik 16ra, ostiraletik igandera. Suziriaren ondoren, besteak beste, bi zita garrantzitsu: Euskal Mendizaletasunaren gala eta Erremonte jaialdia. Larunbat goizean erraldoi eta buruhandien kalejira izanen da, hamalagarren Onddo las-



terketa eginen da eta arratsaldean aizkora erakustaldia izanen da. Altsasuko peñek, gainera, maillot banaketa eginen dute.

Ganadu azoka Ferialekun egonen da eta 49 behi buru izanen dira: Altsasuko Ion Ruiz Imaz, Etxarri Aranazko Mikel Aldasoro Martinez de Ilarduia eta Ioseba Mattin Jaka Carrera eta Senosiaingo Juan Antonio Uztarroz Aizpun abeltzainena. Bestetik, Altsasuko Patxi Goikoetxea Viana, Jose Manuel López de Sabando, Xabi Zelaia eta Gaizka Lopez artzainen ardi

latxa hamar artalde izanen dira. Zelai kalean zaldi lehiaketa izanen da, eta Arbizuko, Etxarri Aranazko, Urdiaingo, Olaztiko, Ziordiako, Lakuntzako, Uharteko Arakilgo eta Arakilgo zaldiek parte hartuko dute.

Gartzia Ximenez kalean, bitartean, 30 janari eta hogeita artisau postu zortzi makina eta erreminta postu izanen dira. Zubeztia plazan Nafarroako Edizioaren Azoka izanen da, lehenengo aldiz Altsasun, eta arratsaldean, 19:30ean, 50. urteurren kontzertu berezia emanen du Egan 50 taldeak Foru plazan.



Dastatu Altsasuko feriak

Konpainiarik hoberena

1964-2022
Amaya

OKINDEGIA



678 323 403
• Iruña Hiribidea, 48 •

948 468 026
• Zumalakarregi Plaza, 3 •

670 389 017
• San Juan Kalea, 50 •

948 562 185
• Otadiko Kriste Deuna, 19 •

ALTSASU

17:30 Peñen elkartzek elkartzeko poteoa eta kalejira.

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

18:00 Aizkora erakustaldia, lortia zabalgunean (eguraldi txarrarekin Burunda frontoian).**19:30-22:00 Joselu Anaiak****taldearekin dantzaldia, Foru plazan.****20:00 Peñen jaitsiera,****Zumalakarregitik Foru plazara.**

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.**23:30-02:00 Joselu Anaiak****taldearekin dantzaldia, Foru plazan.****00:00 Peñen igoera, Foru plazatik Zumalakarregi plazara.**

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

URRIAK 16 Igandea**09:00-14:30 Feria**

• Zaldi lehiaketako zaldien erakusketa, Zelai kalean.

• Ardi latxen erakusketa, Ferialeku kalean.

• Behi erakusketa, Ferialeku kalean.

• Nekazaritzako elikagaien azoka:

patea, ezitia, babarrunak, ogia,

pastelak, gazta, kontserbak,

txistorra, taloak, txokolateak eta

abar, Gartzia Ximenez kalean.

• Artisau azoka: imitaziozko bitxiak,

poltsak, arropa, zurezko jostailuak,

xaboi naturalak, saskigintza eta abar,

Foru plazan.

• Erreminten eta makinaren erakusketa,

Otradiko Santokristo inguruan.

• Azoka txikia, Baratzekobide plazan.

• Mikologia erakusketa,

Labaderoan. Altsasuko Mikologia

Elkarteak antolatuta.

• Altsasuko Mendigoizaleak taldearen XXXIV. Argazki Rallya. Argazki erakusketa, Gure Etxea eraikinean.

• Sakanako XI. Arte Azoka, lortia kultur gunean. Ardebide taldeak antolatuta.

11:00-15:00 Nafarroako VI.**Edizioaren Azoka, Zubeztia****plazan.****11:30-13:30 Altsasuko zaldi****lehiaketaren desfilea****eta sari banaketa, Zelai****kalean.****12:30 Altsasuko txistulariekin****kalejira.****19:30 Egan 50 urte kontzertu****berezia, Egan taldearen eskutik,****Foru plazan.****21:00 Zezensuzkoa, Foru****plazan.**

ARTXIBOA

ALTSASU Goizean zehar, Mikologia erakusketa izanen da Labaderoan igandean, Altsasuko Mikologia Elkarteak antolatuta. Altsasuko Mendigoizaleak taldearen XXXIV. Argazki Rallya ere izanen da.

Egan taldearen urteurren ospakizuna Altsasun

Urriaren 16an, igandea, *Egan 50 urte* kontzertu berezia izanen da, Foru plazan.

Egan 1970ko hamarkadan sortu zen plaza talde bat da. Garai horretan euskal kantagintza asko aldatzen ari zen eta euskaraz abesturiko musika moderna entzuteko eta dantzatzeko gogoak zeuden. Testuinguru horretan sortu ziren Egan eta Akelarre bezalako taldeak, askotan elkarrekin aritu direnak. 2020an, taldearen 50 urteurrenean, Egan 50 taldea osatu zuten, eta urriaren 16an, igandea, 19:00etan, Kontzertu berezia eskainiko dute Altsasuko Foru plazan.

Xabier Saldias kantaria buru zela sortu zuten 1970. urtean Egan.



UTZITAKOA

Plaza talde bat da eta bere errepertorioa gehienbat bertsioz osatuta dago, horietako batzuk oso ezagunak egin direnak, abesti oso ospetsuak euskaratu zituztelako. Guztira hemezortzi disko kaleratu dituzte. 1990ko hamar-

kadan taldea banatu zen eta Egan Berria izenarekin jarraitu zuen eta beste taldekideek Trabuko Egan sortu zuten.

Saldias 2020an erretiroa hartu zuen, eta Egan 50 taldea osatu zuten.

BILTOKI
TABERNA • JANETXEA

Ongi pasa ferietan!

Bokatakibarran

948 562 348 - Altsasu

Ongi pasa ferietan!

PORTUKO

Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (Janategia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

Sakana

Altsasuko

FERIA

2022

URRIAK 16 IGANDEA

ANTOLAKUNTZA

ARGAZKIA RUBY 2018

BADESLETTA

Unamuno

LACUNZA
SANTONJAN
www.lacunza.net

Disenatu: GK

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 14

UHARTE ARAKIL Urri Trans programa: film dokumentalaren emanaldia.

De vuelta en casa dokumentalaren emanaldia Angel Manuel Chivite zuzendariarekin batera eta Kattalingune Nafarroako Gobernuko LGBTBI+ zerbitzuaren aurkezpena. **18:00etan, udaletxean.**

ALTSASU Gazte agenda.

Billar txapelketa. **18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**

ETXARRI ARANATZ Bertso afaria.

Bertso afaye Andoni Egaña eta Jone Uria bertsolariekin. Karrikestu elkarteak antolatuta. **21:00etan, Karrikestu elkarte.**

LARUNBATA 15

ARBIZU Sarean euskaraz.

3D inprimagailuak erabiltzen ikasteko tailerra. **18:00etatik 20:00etara, liburutegian.**

ALTSASU Gazte agenda.

Mahai jolasak. **18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**

IRURTZUN Garagardo azoka.

Pikuberfest. **19:30ean, Pikuxarren.**

IGANDEA 16

IRURTZUN Txotxongilo ikuskizuna.

Javier Aranda konpainiaren *Parias* helduendako txotxongilo antzezlanaren emanaldia. **19:00etan, kultur etxean.**

ALTSASU Elkarretaratzea.

Euskal preso eta iheslariak etxera. **20:00etan, plazan.**

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

La vida padre gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Igandea 16 19:30

La chica salvaje gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 20 19:00
Ostirala 21 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

El radioaficionado zineforum filmaren emanaldia
Igandea 16 19:00

Libélulas zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 20 19:00

ASTELEHENA 17

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde. **12:00etan, udaletxearen aurrean.**

AIZKORBE Bertako barietateak tailerra.

Udazkeneko baratzen maneiu ekologia ikastaroa Arrea Agroekologia elkarteko Tania Gómezekin. **16:30etik 18:30era, bentan.**

ASTEARTEA 18

ARBIZU Batzarra.

Sakanako euskaltzaleen batzarra. **18:00etan, udaletxean.**

ASTEAZKENA 19

ALTSASU Tailerra.

Kafe konpondu. **17:30etik 19:30era, Gure Etxea eraikinean.**

IRURTZUN Irakurle taldea.

Aritz Galarragaren *Gogoan dut* liburua mintzagai izanen dute. **19:00etan, Pikuxarren.**

OSTEGUNA 20

IZURDIAGA Topaketa.

Arakilgo emakume taldea. **18:00etan, elkartean.**



IORTIA KULTUR GUNEKO

IRURTZUN Haize Berriak Bandaren 25 urteko kartelen erakusketa.
Urriaren 31ra arte. Pikuxar tabernan.



IORTIA KULTUR GUNEKO

ALTSASU Artebidek antolatutako XI. Arteazoka.

Urriaren 14tik 30era. Asteleheneetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara eta asteburuak 18:30etik 20:00etara. Iortia kultur guneko erakusketa gelan.

ZIORDIA Urri Trans programa: liburuaren aurkezpena.

Sentimientos encontrados liburuaren aurkezpena Ander Oyarzabal idazlearekin. **18:00etan, liburutegian.**

ALTSASU Euskaraldia: Hitzaldia.

Zergatik sortu zen Euskaraldia? Zergatik da garrantzitsua hirugarrenez egitea? Zer lortu dugu orain arte? Eta zer daukagu lortzeko? Erantzunak Euskaltzaleen Topaguneko Garikoitz Goikoetxeak emanen ditu. **19:00etan, Gure Etxea eraikinean.**

OSTIRALA 21

LAKUNTZA Urri Trans programa:

Film dokumentalaren emanaldia.

Mi pequeño gran samurai dokumentalaren emanaldia eta Naizen Adingabe Transexualen Elkartearen familien testigantzak. **19:00etan, kultur etxean.**

IRURTZUN Gazte eguna.

Irurtzango eta Arakilgo Gazte Asanbladak, Larrazpik eta Irurtzango GKS antolatuta. 19:00 GKSren aurkezpena, gaztelaniaz, kultur etxean. 19:30 Hitzaldia: *Claves para la construcción del socialismo*, kultur etxean.

21:00 Pintxo pote musikatua, Larrazpin.



zorion@
guaixe.eus

IRAGARKI SAILKATUAK

GALDUTAKOAK/OPATUTAKOAK

OPATUTAKOAK
Erlojua Etxarri Aranazko parkean: Ume baten erlojua parkearen ondoan opatu dute. Tom eta Jerry ageri dira erlojuan, BELEIXE IRRATIAN dago jasotzeko.

IKASTAROAK

Pikubertsos Bertso Eskolan izen ematea zabalik: Irurtzongo Pikuxar Elkarteak antolatuta, astean behin, 18:00etatik 19:30era (eguna partaideekin zehazteko) bertso ikastaroa egingo da. Urriaren 17ko astean hasiko da ikastaroa eta izena emateko 630 424 426 zenbakira whatsapp mezua bidali behar da, epea urriaren 17an amaitzen da.

Sarean Euskaraz gazteei zuzendutako ikastaroak: Nafar Gobernuak Sarean Euskaraz ekimenaren barruan gazteei zuzendutako ikastaro hauek antolatu ditu: Altsasun, urriaren 8an, 18:00 - 20:00 Musika sortzeko eta nahasteko aplikazioak inxtostiapuntan eta Arbizon urriaren 15eran, 11:00-13:00 3D inprimagailuak Liburutegian.

LEHIAKETA

Iruñeko Udalak Egite Berrientzako XXXII. Euskarazko Literatur Lehiaketa: Egileek lan bana aurkezten ahaliko dute modalitate bakoitzeko. Idazlanek gai librean izanen dute eta euskaraz idatziak izan beharko dute, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak. Sari modalitateak: poesia (lanak gutxienez 200 bertso lerro izan behar ditu) eta narrazioa (lanak gutxienez 15 orri izan behar ditu

Arial letra mota, 11 tamainakoa, tarte bikoitzaz). Lehen saria 2500 eurokoa eta bigarren saria 1000 eurokoa izango dira modalitate bakoitzeko. Epea urriaren 28an amaituko da. Parte hartu nahi baduzu www.pamplonacultura.es web orrian dagoen inprimakia bete behar da. Informazio gehiago web orri horretan ere.

OHARRAK

Bakaikuko Jubilatutako elkarteko bazkide egiteko aukera: Hiru Haizt Jubilatutako elkartek irailaren 11n egindako bilan bere egoitzan herrian erroldatuta dauden herriko jubilatutako sar daitezkeela erabaki zuen, sarrerarik ordaindu gabe. Horrekin batera bazkide berriek hileko kuotak besterik ez dituzte ordaindu beharko. Bazkide egiten interesa dutenek urte hasiera baino lehen zuzendaritzako kideekin harremanetan jar daitezke.

Aralarko taberna-jate-itxia: Deun Mikel Golainguruaren Kofradiak jakinarazi duenez, heldu den astelehenean, hilak 17, azaroaren 8ra arte, Aralarko santutegi ondoko taberna oporregatik itxita egonen da. Hala ere, Aralarko santutegia egunero zabalik egonen da 10:00etatik 18:00etara, astelehenean izan ezik. Ordutegi berean, santutegi ondoko aterpea eta komunak ere zabalik egonen dira.

Errigora saskiak betetzeko auzolana: udazkeneko "Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka" kanpaina egiten du Errigorak, hainbat etxetara milaka Nafarroako hegoaldeko produktuekin milaka kutxa banatuz. Etekinen zati bat Nafarroa erdialde eta hegoaldeko

euskalgintzari bideratzen dio. Lastailaren 22an izanen da, Ablitasen. 09:00etan gosaldutako egiten dute parte hartzaileek eta lanari 09:30ean ekinen diote. Hura despedituta, 14:30ean, bazkaria izanen da. Errigoraren auzolanean parte hartu nahi duenak www.errigora.es/auzolana2022 web orrian eman behar du izena.

Konposta eskuragaita: Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak jakinarazi du edonor har dezakeela konpost Arbizuko UtzubarEKOguneko konpost plantatik. Astegunetan 08:00etatik 15:00etara joan daiteke. Nondik hartu jakiteko zerbitzuaren bulegotik pasa behar da. Zakuak eramatea gomendatzen da. Konpost gurdikadak ere eraman daitezke.

Sakanako Mankomunitatearen Euskara zerbitzuko dirulaguntzak: Euskaltegiandako, UEUn ikastaroak egin dituztenedako, euskara hutsez udalekuetara joan direndako, euskara ikasten daudenedako eta Errotuluak (dendetan etab.) euskaraz jarri dutenadako dirulaguntza deialdi ezberdin hauetan eskararak aurkezteko epea zabalik dago. Eskabide guztiak Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan edo egoitza elektronikoa- ren bidez aurkeztu beharko dira. Ez dira posta elektronikoko bidez jasotako eskabideak aintzat hartuko.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

EZKONTZAK

• **Cristian Moreno Cano eta Yasmine Garcia Castro,** urriaren 10ean Irurtzunen

HERIOTZAK

• **Eugenio Mozo Mozo,** urriaren 9an Unanun


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

JARRI ZURE IRAGARKI LABURRA!


948 56 42 75
 iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 14




Larunbata, 15



Igandea, 16



Astelehena, 17



IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarki Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
 edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

HEMEN, ZURE ONDOAN AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

FUTBOL PREFERENTEA

5. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Etxarri Aranatz	0-0
Lagun Artea - Lezkairu	1-1

6. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lezkairu - Altsasu	1-1
--------------------	-----

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Universidad de Navarra	13
4	Altsasu	11
6	Etxarri Aranatz	8
15	Lagun Artea	3

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATA, URRIAK 15

12:00 Etxarri - Itarua Huarte (*San Donato*)

17:45 Soto-Ibarbaso - Lagun A. (*Lezkairu*)

Altsasu, bi jardunaldietan bi puntu

Altsasuk eta Etxarri Aranatzek Dantzalekuan jokatuak derbia husnako berdinketarekin bukatu zen, eta asteazkenean Lezkairuk eta Altsasuk jokatuakoa banakoarekin.

Etxarrik Itarua Huarte du aurkari

Sailkapenean seigarren da Etxarri, eta bihar eguerdian bederatzigarren den Itarua hartuko du, arerio zuzena.

Lagun Artea, Soto Ibarbasoren kontra

Lezkairuren kontra bana berdindu eta gero, Soto Ibarbaso da Lagunen arerioa. Puntuak biltzen hastea da gakoa, konfiantza lagun.

PREFERENTEA EMAK.

3. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Berriozar	1-0
---------------------	-----

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENT. 1. MULTZOA

1	Burladés	9
7	Altsasu	3

HURRENGO JARDUNALDIA

DATARIK GABE

Altsasu - Gazte Berriak (*Dantzaleku*)

Altsasuren lehen garaipena

Denboraldiko lehen garaipena lortu dute Altsasuko neskek, Berriozarri irabazita.

FUTBOL ERREGIONALA

4. JARDUNALDIKO EMAITZA

Valle Aranguren - Altsasu B	2-2
-----------------------------	-----

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1	Arrotxapea B	12
6	Altsasu	7

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATA, URRIAK 15

16:00 Altsasu B - Arrotxapea B (*Dantzaleku*)

Altsasuk liderra hartuko du

Arrotxapea B taldearen kontra itxura ona eman nahi dute altsasuarrek.

Feriak ongi hasteko, Onddo Lasterketa

ATLETISMOA Dantzaleku Sakanak antolatutako Onddo Lasterketaren 14. edizioa bi modutan egin ahal izango da: oinez, 10:30ean, edo korrika, 11:00etan. 42. Eskola Arteko Krosa 12:00etan hasiko da

Maider Betelu Ganboa ARTXIBOA

Askorendako tradizioa bilakatu da Altsasuko Feriak Onddo Lasterketan parte hartuz hasia. Goizean korrika edo oinez Basoixin eta ondoak jaiotzen diren paraje zoragarriari buelta egitea, ondoren dutxa ederra hartu eta feriaz behar bezala gozatzeko. Eguraldia lagun, korrikalari eta ibiltari asko espero dira larunbatean Dantzaleku Sakanak antolatu duen XIV. Onddo Lasterketarako.

Bi aukera

Onddo Lasterketan bi modura parte hartu daiteke, paseoa egin edo korrika. Ibilbidea bera da, San Pedron, Basoixin eta inguruetan prestatzen den 7 kilometroko ibilbide zoragarria. Goiztiarrenak oinezko martxan parte hartuko dutenak dira, 10:30ean abiatuko baitira Foru plazatik. Korrikalariak, aldiz, ordu erdi beranduago hartuko dute irteera, 11:00etan. Nahiz eta aurten gehiegirik ez egon, ondo eta ziza artean ibiliko dira guztiak.

Izena ematea zabalik dago Dantzaleku Sakana klubeko webgunean (5 euro). Gehienez ere 250 pertsonak eman ahalko dute izena oinezko eta korrika egingo den martxak gehituz. Tokiak egonez gero, larunbatean goizean



Onddo Lasterketa probarik herrikoiena da San Silvestrearekin batera. ARTXIBOA

izena emateko aukera egongo da plazan. Izena ematen dutenek Onddo Lasterketako kamiseta jasoko dute, kamisetak bukatu arte.

Bukaeran, ohi bezala, hiru ondo saski zozketatuko dira partaide guztien artean. Zare horietako bat lortzea bai dela, zalantzarik gabe, feriak ongi hasteko modua.

Joan zen urtean 268 parte hartzaile izan zituen Onddo Lasterketak, korrikalariak eta oinezko martxan parte hartu zutenen kopurua gehituta.

12:00etan, txikienak

Eguerdian 42. Eskola Arteko Kroseko lasterketak jokatu dira, benjaminen, kimuen eta haurren mailako probak, plazan. Iaz 59 gaztetxo animatu ziren.

Erremontea

Altsasuko ferietarako erremon-te jaialdia antolatu dute gaur, ostirala, 19:00etan. Loitegi eta Zubirik Goikoetxea V.a eta Martirena izango dituzte aurkari, eta Aldabek eta Barrenetxea IV.ak Ezkurra II.a eta Azpiroz. Sarre-rak 5 euro balio du.

Joanes Bakaikoak puntu oso gozoa lortu du Promesen kaiolan

PILOTA Zabalaren kontrako lehia gogorra irabazi du. Maila nagusian, Ezkurdia lehiari sartuko da

Lau eta Erdiko Txapelketa final laurdenetako ligaxkan murgildu da. Promesen mailan, ligaxkako lehen jardunaldia jokatu da eta faborito nagusiak, egungo txapel-dun Joanes Bakaikoak, ez zuen huts egin, Zabalarri 22 eta

19 irabazi baitzion Atarrabian. Bigarren jardunaldian Bakaikoak Exposito izango du aurkari astelehenean Tolosan jokatu den partidari. Final erdietara sailkatzeko erronkan, bigarren puntua lortzea gakoa da.

Ezkurdia, kaiolara

Maila nagusiko Lau eta Erdiko Txapelketa, aurreko asteburuan final zortzirenak jokatu ziren. Peñak, Dariok, Elezkano II.ak eta Elordik egin zuten aurrera, eta final laurdenetako ligaxkan talde buruak dituzte zain. Lehen jardunaldia jokoan dago, eta Joseba Ezkurdiak Elordi izango du aurkari ostiralean Beasainen. Ezkurdia da faborito nagusia, zalantzarik gabe, baina Elordi Jaka bidean uztetik dator eta sorpresa emateko prest dago.



Osasuna Magna Xota. XOTA

ARETO FUTBOLA Osasuna Magnaren gaztetasuna goraiatu dute

Espainiako Futbol Federazioak Osasuna Magna Xotaren gaztetasuna goraiatu du. Federazioaren azaldu duenez, talde irurtzundarraren batez bestekoa ez da 23 urtera iristen (%22,8 urte, hain zuzen ere), Noia Portus Apostoli (25 urteko batez bestekoa) edo Antequera (25,2 urteko batez bestekoa) taldeena baino gutxiago. Gainontzeko taldeen batez bestekoa handiagoa da. Bi irurtzundar daude muturrean. Roberto Martil kapitaina da Xotako beteranoena, 35 urterekin, eta Ion Cerviño, 18 urterekin, gazteena.

Inter Movistarren kontra

Lehen Mailan ligako laugarren jardunaldia dago jokoan. Osasuna Magnak Inter Movistar, ligako oilarretako bat hartuko du gaur, ostirala, 20:00etan, Anaitasunan. Imanol Arregi entrenatzaileak beste arazo bat du, Toni Escribanok ezingo baitu jokatu, hanka bihurritua duelako. Dena den, talde berdea ez da kikilduko eta dena emango du.



Bakaiko, kaiolako distantzian lanean.



Baja garrantzitsuak ditu Xotak. Txantrearen kontrako partidaren asko nabaritu zen. XOTA

Areto futboleko denboraldia asteburuan hasi zen

ARETO FUTBOLA Emakumezkoen senior mailako Xotak eta Hirugarren mailako Aralar Mendik ez zuten punturik bildu

Areto futboleko ere martxan da denboraldia. Hirugarren mailan Uharteko Arakilgo Aralar Mendik zailtasun guztiei aurre eginda taldea ateratzea lortu du. Lehen jardunaldian San Juan izan zuen aurkari. Bi taldeak parez pare lehiatu ziren, eta gidoia errepikatu zen: San Juan bi aldiz aurreratu zen eta bitan berdindu zuen Aralar Mendik, Mounirrek eta Jorge Mariñelarenak sartutako golei esker. Tamalez, San Juango David Molinaren parekotasuna apurto eta 3 eta 2 galdu zuten sakandarrek. Asteburuan Cintruenigo taldea hartuko dute.

Emakumezkoen Senior Mailako lehen jardunaldian Xotak Txantrearen kontra jokatu zuen, baja oso garrantzitsuekin. Partida hasieratik hankaz gora jarri zitzairen, Txantrea lehen minuturako aurreratu baitzen. Irurtzundarrei buelta ematea kosta egin zitzairen, eta hain justu gol aukerak sortzen hasi zirenean, bigarrena sartu zuen Txantreak. Atsedendirako 2 eta 1 gerturatu zen Xota, baina bigarren zatian Txantrea hobeki aritu zen eta, azkenean, 4 eta 1 galdu zuen Xotak. Larunbatean Mendiak hartuko dute Irurtzunen.

Bargagainen goitik hasi dute denboraldia

TAEKWONDOA Asteburuan Miranda de Ebroko Taekwondo Open Nazionalen parte hartu zuten Bargagaingo taekwondistek eta guztira 16 domina ekarri zituzten. Taldekako txapelketan ia podiumera igotzear egon ziren

Asteburuan XXXVI. Miranda de Ebroko Taekwondo Open Nazionala jokatu zuten. Bertan 350 taekwondistek hartu zuten parte, tartean Sakanako Bargagain klubekoek. Maila ederra zuen txapelketak, eta kirolari sakan-darrak ere hala aritu ziren, guztira 16 domina ekarri baitzituzten. Gainera, taldekako txapelketan laugarren sailkatu zen Bargagain, bigarren eta hirugarren sailkatu ziren taldeekin urretara berdinduta.

16 dominak

Haurren mailan, Hamzak eta Irek urrezko domina lortu zuten, Zok zilarrezkoa eta Unaxek, Oinatzek eta Saulek brontzezkoak. Kadeteen mailari dagokionez, Leirek eta Raniak urre bana lortu zituzten eta Josebak zilarrezkoa. Aiala eta Hugo hirugarren sailkatu ziren, brontzezko domina eskuratuz. Eta senior mailan, Iratik, Mohak eta Erkuenek urrezko domina lortu zuten bo-



Bargagaingo taekwondistak eta irakaslea Miranda de Ebron, pozik. BARGAGAIN

rrokaldi bikainetan, eta Sarayk brontzea eskuratu zuen.

Bargagain klubeko Gerardo Moreno irakasleak balorazio ezin hobea egin du. "Mirandakoak oso emaitza onak dira. Kontuan hartuta ikasturte hasieran gau-

dela eta taekwondistak oraindik denboraldi berriari tamaina hartzen ari direla, are gehiago. Gure borrokalariek tatamian sentsazio oso ona izan zuten, eta hau hasi besterik ez da egin" azaldu du.



Altsasu Kirol Elkartea, 18 futbol talde eta 319 futbolari

FUTBOLA Asteazkenean 2022/2023 denboraldiko futbol taldeen aurkezpena egin zuen Altsasu Kirol Elkartea. Aurten gorakada handia izan du futbolak, aurrebenjaminetatik hasita Preferente mailara bitartean guztira 18 talde baititu Altsasuk, horietatik 3 emakumezkoenak, eta guztira 319 futbolari trebatzen ari baitira Dantzalekun, 23 entrenatzaileekin. Joan zen urtean 16 talde eta 230 jokalarik ziren.

Ohiko babesleez gain, aurten Altsasu Kirol Elkartea babesle nagusi berria du, Monte Aratz taldea, Valcarce zerbitzuginen ostalaritza enpresa. Emakumezkoen eta gizonezkoen Preferente mailako taldeek eta jubenilen mailakoek bere publizitatea dute. Bestalde, asteburuko futbol partidak jokatzen diren bitartean Monte Aratz taldeak eskainiko du taberna zerbitzua. Altsasu Kirol Elkartea ere futbol koordinatzaile berria du aurten, Ivan Arevalo.



Joseba Iraolaren nagusitasuna erabatekoa izan zen. Bizkaitarrak motorzaleen miresmena piztu zuten.

Aspaldiko ikusgarriena

AUTOMOBILISMOA 40. Urbasako Igoera ikuskizun hutsa izan zen. Pilotuen maila sekulakoa izan zen, Joseba Iraolak bere errekorra lau segundotan apurto zuen (3:29.153) eta Urbasan bildutako milaka pertsonen sortutako giroa, mundiala izan zen

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI Eguraldiak ateri eutsi zion eta euririk gabe jokatu zen Sakana Motorsportek antolatutako 40. Urbasako Igoera. Data borobilean, egunaren deskribapena halakoa izan zen ere, borobila itzan baitzen bai pilotuek eskainitako ikuskizunaren aldetik, bai milaka eta milaka motorzaleek sortutako giroaren aldetik eta bai natur parkean bildutako gehienen portaeraren aldetik ere. Jende gehienak eguna pasatzeko eramandako janari, edari eta bestelakoak txintxo-txintxo bildu eta probaren ondorengo garbiketa lanak azkar egin ahal izan zituzten.

Antolakuntzak zehaztutako 100 partaideen tokiak aspaldi beteak zirela, pilotuek ahalik eta ikuskizun gehien eskaini nahi izan zuten. Jakina zen joan zen urteko irabazlea, Joseba Iraola Lanzagorta (Norma NP01) zela

favorito nagusia, eta Balmasedakoak gainontzeko pilotuak baino koska bat gorago dagoela erakutsi zuen, gainontzekoek baino auto askoz hobea duelako, eta aurtun lehiatu den txapelketetan maila ona lortu duelako. Berak irabaztea espero zen, baina iaz berak ezarritako errekorra lau minutuetan hobetzea, agian ez horrenbeste. Olaztitik Urbasako portu gainera bi minutu eta 57 segundotan igo zen. 5,93 km eta 39 bihurtune 2:57.862-ko denboran. Harrigarria. Bere nagusitasuna ikaragarria izan zen, 22 segundotatik atera baitzizkion

IRTEERA HARTU ZUTEN 100 PILOTUTATIK 89 SAILKATU ZIREN, TARTEAN 8 SAKANDAR

Arkaitz Ordoki Gamezi (3:19.020, Norma NAC M20FC) eta 24 segundotatik Aitor Manso Garmendiari (BRC B49).

Lasterketa oso ona eginda eta sorpresa emanda, sailkapen orokorreko laugarren postuan Iker Palacios Andueza sakandarra sailkatu zen (BRC B52, 3:29.153). Podiumera igotzeko 8 segundora geratu zen pilotu lakuntzarra.

Irteera hartu zuten 100 pilotuetatik 89k bukatu zuten proba, tartean zortzi sakandarrek. Maila onean aritu ziren, eta aurtun ez zen pilotu sakandarrik erretiratu.

Lasterketak Olaztin izan zuen eragina nabarmena izan zen. Goizetik hasita, milaka motorzalek hartu zuten Urbasako bidea, eta Olazti txiki geratu zen. Autoen asistentzia guneak aparteko arreta sortu zuen, eta Urbasako maldak milaka motorzalez bete ziren.

Sakandarrak Urbasako Igoeran

40. Urbasako Igoera (5,93 km)

1. Joseba Iraola (Norma NP01)	2:57.862
4. Iker Palacios (BRC B52)	3:29.153
28. Delfin Goikoetxea (Proto Alpine)	3:57.733
32. Arkaitz Irigoien (Renault Clio)	3:59.084
37. Iban L. de Goikoetxea (R5 GT Turbo)	4:04.460
39. Ander Gurmindo (Renault Clio Sport)	4:04.938
45. Mikel Mendinueta (P205 GT Turbo)	4:08.423
52. Asier Juanez (Renault Clio Sport)	4:12.247
53. Iker Askargorta (Opel Astra GSi)	4:12.964



Delfin Goikoetxea iturmendierra bere Proto Alpine autoa doitzen, asistentzia gunean.



Ander Gurmindo, ibilbideko bigarren bihurtune gaituta, Urbasako portuan gora.



Iker Palacios Andueza, BRC B52 bere CM mailako autoaren ondoan Urbasako Igoerako bigarren mangari ekin aurretik.

"Denborak ez esateko eskatzen nien, eta hobeki aritu nintzen"

IKER PALACIOS ANDUEZA SAKANA MOTORSPORT ESKUDERIAKO PILOTUA

AUTOMOBILISMOA Pilotu lakuntzarra laugarren sailkatu zen 40. Urbasako Igoeran, postu bikaina. Etxeko proban lasterketa ona egin izanak poztu du gehien

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA Iker Palacios Andueza pilotu lakuntzarra mekanikaria ere bada eta Elketz tailerra du Arbizun. Txikitatik da motorzalea. "Tomas Ekert kuadrillakoa eta biok gaztetatik Urbasako Igoerara joaten ginen, eta baita beste lasterketetara ere. Lasterketekin amets egiten genuen, bertan aritzeko eguna iritsi zenera arte" dio pilotuak. 40. Urbasako Igoeran laugarren sailkatu zen (3:19.020), lorpen handia. **Noiz hasi zinen lasterketetan?**

Uste dut 2015 urtean izan zela. Peugeot 205 GTI-a erosi eta Urbasako Igoerarako prestatu genuen. Desastre hutsa izan zen. Lehendabiziko mangan enbragea apurtu zen eta hortik aurrera ezin izan genuen fundamentuz-

"DENBORAREN PRESIORIK GABE, ASKEAGO GIDATU NUEN. GAINERA, AUTOA IKUSGARRI ZIOAN"

ko ezer egin. Autoak ez zuen konpontzea merezi, eta Tomasekin hitz egin ondoren CM autoekin probatzea erabaki genuen. Eta, egia esan, oso ongi. Egun dudan autoa (BCR B52) CM autoa da, eta joan zen urteko Urbasako Igoeran mustu genuen. Hasiera-koak 1.000 motorrekoak ziren, eta egungoak 1.340 motorra du. **Halako autoek mekanikari gehiago behar dituzte atzean?**

Lan tekniko gehiago eskatzen dute. Autoa gehiago findu behar da, doikuntza asko egin behar

dira. Auto hauek abiadura handia dute, oso urduriak dira eta zure gustura jarri behar duzu, zure gidatzeko moldera, halako ibilgailu batek ez baititu akatsak onartzen. Pasatzen zarenean, eta hau esperientziaz diotsut, garesti ordaintzen duzu.

Pluralean hitz egiten duzu.

Mundu honetan lagunduko dizun lantaldea behar duzulako eta erabakiak askotan guztion artean hartzen ditugulako. Tomas Ekert mekanikaria, Javier Aldai BRC autoen mekanikaria eta Migel Angel Lizarraga etortzen dira gehienetan nirekin lasterketetara. Aldai teknikari itzela da. Bilbotarra, Javi Villa pilotuari asistentzia egiten dio ere. Lasterketak oso ongi irakurtzen, ulertzen eta prestatzen ditu, eta laguntza handia da. Batzuetan Mikel anaia, Patxi Xabier Razkin laguna eta beste hainbat ere etortzen dira. Hasieran lasterketa batera joatea festa batera joatea bezalakoa zen guretako, baina orain serioago aritzen gara, lasterketan zentratuta.

Nola prestatu zenuen Urbasako Igoera?

Hau bizikletan ibiltzea bezalakoa da. Askok entrenatu eta ibiltzen denak fondoa egiten du eta erritmoa, martxa eta abiadura hartzen du. Eta ez bada ibiltzen, ez du erritmorik. Argi eta garbi. Lana dela eta, ez dut entrenatzeko nahikoa denborarik, eta horregatik beti erritmo falta nabaritzen zaigu. Igoerako aurreko astean autoa zirkuituan probatu genuen. Auto honek buruko min asko eman dizkigu, doikuntzak direla eta. Ez genuen behar bezala egokitzen, baina zirkuituan maila onean jartzea lortu genuen. Autoa primeran zihoan eta gidatzea zoramen hutsa zen. Nire gustura zegoen, gidatzeko sekulako konfiantza ematen zidan eta gustura geratu nintzen.

Harritzekoa bada ere, aurten lehen aldiz zure lantaldeari esan zenion Urbasako Igoeran ez zenuela denbora erreferentziarik jakin nahi.

Manga bakoitzean denborak dakizkizunean lana ongi egiten ari bazara ongi egon daiteke, baina hala ere urduritzen zara, gainon-

"URBASAN SEKULAKO JENDETZA ZEGOEN, HARRIGARRIA ZEN. BUKAERAN NAFARROA OINEZ ZIRUDIEN"

tzeko pilotuek euren denborak hobetu ahal dituztelako. Hori ere presioa da. Eta gaizki ari bazara, ba zer esanik ez. Aurten erabaki nuen ez nuela denborarik jakin nahi, presiorik gabe askeago gidatuko nuela, disfrutatuz, eta nire lanean zentratuko nintzela. Asistentziara heltzerakoan taldekideen aurpegiak ikusterakoan konturatzen nintzen ez nentzela gaizki. Gainera, autoa ikusgarri zihoan, asko ibiltzen zen, gozamen hutsa. Lasterketa bukatu eta asistentziara jaitsi arte ez nuen egindako denbora jakin.

Urbasa 3:19.020an igo zenuen, laugarren postuan.

Oso pozik nago, CM mailan Iparraldeko pilotu guztien aurretik sailkatu bainintzen. Bizitza guttirako postu horrekin geratuko bagina ere, etxean lasterketa ona egin izana guretako hori asko da. Lehen sakandarraren saria jaso nuen, eskertuta.

Joseba Iraolarena ikusgarria izan zen: 2:57.862, eta errekorra.

Iraola beste liga batean dago. Bere autoak 400-500 zaldi inguru izango ditu eta gureak 200-230 zaldiren artean daude. Horrekin guztia esaten dizut. Barcelonak eta Lagun Arteak futboleko jokatuko balute bezala da. Aurten Europako Txapelketetako zenbait probatan aritu da eta nabaritzen zaio, erritmo gehiago hartu du.

Zein da zure lasterketa gustukoena?

Etxekoa, Urbasako Igoera, zalan-tzarik gabe. Eta gero Izpegi eta Ibardin. Urdurien jartzen nauen proba da Urbasakoa, baina bereziena. Aurten sekulako jendetza zegoen, harrigarria zen. Lasterketa bukatzerakoan zenbat eta zenbat jende ateratzen zen errepidera, Nafarroa Oinez zirudien. Nire ustez, Urbasako Igoera da jende gehien biltzen duen eta giro ederrena duen proba. Gainera, ez zen arazorik egon eta motorzaleek ere ongi pasatu zuten eta ongi portatu ziren, Urbasa garbi utzi baizuten. Antolakuntzakoek azkar bildu omen zuten guztia, eta poztekoa da.

Zein da zure hurrengo helburua?

Ez dakit aurten beste probaren batean ariko ote naizen. Datorren urterako autoa hobeto prestatzea eta 2023an Nafarroako eta Euskadiko egutegiako probetan aritzeaz gain agian Kantabria aldera ateratzea ari gara aztertzen. Ibili eta erritmoa hartu. Baina hori aurrekontuak baldintzatuko du. Babesletzaren bat eskertuko genuke (kar, kar).



Sarean Euskaraz programaren barruan 3D inprimagailuak ikastaroa izanen da Arbizon. UTZITAKOA

Euskarazko mundu digitala

Sarean Euskaraz teknologia berriak eta euskara gerturatzeko proiektu bat da. Helburu nagusia, beraz, euskarazko kultura digitala "ezagutzea, sustatzea eta ezagutaraztea" da. Horretarako jardunaldiak eta ikastaroak antolatzen dituzte; larunbatean, Arbizon

Eneida C. M. eta Erkuden R. B.

ARBIZU

"Euskarazko software edo lanabesak garatzea, jendeak horiek instalatzea eta euskarazko edukia sortzeko eta elkarbanatzeko erabiltzea da programaren helburuetako bat. Horrekin batera, beste hainbat helburu ere baditu, jendeak elkargune bat izatea eta aisialdia euskaraz eskaintzea, besteak beste". Iñigo Martinez Sarean Euskaraz egitasmoaren koordinatzailea da. Proiektua Nafarroako Gobernuak bultzatzen du, Euskarabidea Euskara Institutuaren bitartez, eta bi ildo ditu: jardunaldiak eta ikastaroak. Jardunaldiak Iruñeko Baluartean egiten ari dira atzo eta gaur, urriak 13 eta 14, eta DBH4 eta Batxiler 1. mailetakoko 900 bat ikasle izango dute parte hartzeko aukera. Ikastaroen alorrean, Sakanan bi antolatut

dituzte: aurreko astean telefono mugikorraren bidez musika aplikazioak erabiltzen ikasteko ikastaroa eta bihar, larunbata, 3D inprimagailuen txanda izanen da, Arbizuko liburutegian.

Egitasmoak Baluartean du jatorria: "2017an egin zen lehenengo aldiz, jardunaldi formatuarekin. Urtero egin da, 2020. urtean izan ezik". Pandemiaren garaian, programaren formatua aldatu zuten, eta Iruñeritik kanpo atera zuten, "lantegiak ikastetxetara eraman genituen, eta aldaketa horri esker asko hazi zen". Hortaz, Baluarte-ko jardunaldia ez ezik, formatu

3D PRODUKTUAK SORTZEKO PROZESU OSOA ERAKUTSIKO DUTE, LARUNBATEAN, ARBIZUN

berria ere mantendu dute (modu erdi presentziala) "Eskarmendu handia daukagu, Baluartean antolatzen den seigarren edizioa izango da, eta horrelakoak Donostian, Barakaldon eta beste hainbat tokitan ere egin ditugu. Lantaldeak eskarmentu handia du, eta Euskal Herrian kultura digitalean lan egiten duten hainbat pertsona biltzen ditu". Proiektua "bilgune" ere badela esan du Martinezek

Sarean Euskaraz programaren helburuekin jarraituz, 2019an lantegiak antolatzen hasi ziren Nafarroako hainbat herritan. Hemezortzi herritara zabalduko dute proiektua: Altsasu, Arbizu, Antsoain, Artika, Barañain, Bidaurreta, Burlata, Etxalar, Goizueta, Uhartea, Iruñea, Gares, Tafalla, Urroz-Hiria eta Atarrabian ere izanen dira ikastaroak. Aurreko larunbatean Intxostiapun-

ta gazte gunea aukeratu zuten ikastaroa egiteko, Altsasun egiten den hirugarrena da. Oraingoan DJ Makalak musika sortzeko eta nahasteko aplikazioak erabiltzen erakutsi zuen. "Oso ikastaro entretengarria da eta harrigarria da mugikor batekin zenbat gauza egin ahal diren". Martinezek gaineratu duenez, "luxu bat da" DJ Makala bezalako aditu eta ezagun baten eskutik "hau guztiaren" berri izatea. Bihar, urriak 15, larunbata, 11:00etatik 13:00etara, Xabier Leonardo Protomakers elkarteko kideak 3D inprimagailuak erabiltzeko ikastaroa eman- go du. "Ikastaroak irekiak dira, ez dago adin mugarik. Gutxiene- ko adin muga 12 urte jarri dugu, hortik gorakoek hartu dezakete parte, beraz. Gainera, sorpresak hartu ditugu adin guztietako jendea agertzen delako". Ikastaroak doakoak dira, baina aurretik ize- na ematea eskertzen dute.

Teknologia euskaraz

"Orokorrean proposatzen ditugun ikastaroak laburrak dira, gutxi gorabehera bi ordukoak. Gaiaren gaineko lehen hurbilpena da. Interesa pizten zaionari hortik tiraka hasteko aukera izango du". Arbizon 3D inprimagailuak erabiltzen hasteko gutxieneko prestakuntza egingo dute. Hala ere, hiru dimentsiotan inprimitzeko prozesu guztia erakutsiko du Xabier Leonardok: "3D modelajea ikusiko dugu, elementuak nola diseinatzen diren: ikusiko

dugu nola egiten den fabrikazioa, 3D inpresorak erabiliko ditugu eta gauzak egingo ditugu".

Leonardo Protomakers elkarteko kidea da. Protomakers gazte talde bat da, astero edo hilabetero elkar- tzen dira, "eta gure helburua da XXI. mendeko teknologiarekin aritzea, ulertzea eta erabiltzea". Haien artean proiektuak martxan jarri, tailerrak egin eta, orokorrean, gaur egungo teknologiarekin aritzeko gauzak egiten dituzte. "Adi- bide bat jartzeko, errealitate bir- tualeko programekin aritzen gara, programazio askorekin, 3D inprimagailuekin eta modelajearekin, laser gailuekin...". Gailu eta tekno- logia hauek oso garestiak direnez, finantzatzeko, besteak beste, tailer- rrek egiten dituzte. Eta hori guztia euskaraz: "Teknologia hauen he- dapena euskaraz izatea izugarri baloratzen dugu. Horregatik egiten ditugu tailer asko euskaraz. Batzue- tan badirudi mundu hau euskara- tik oso aparte dagoela, eta Sarean Euskaraz bezalako proiektuek egiten dutena da euskara tekno- logiara gerturatzeko, lotuta dauden bi gai baitira. "

Larunbatean, 11:00etan, Arbizu- ko liburutegian egingo den ikas- tarora joaten denak 3D munduko fabrikazio prozesu osoa ikusiko du: piezak hiru dimentsiotan diseinatu edo modelatzen direnetik, produktuak inprimatuta ikusi arte. "Guk diseinatutako piezak modu fisikoan nola gelditzen diren ikusi- ko dugu". Agian "zerbait" etxera eramateko aukera izango dute.



Musika App ikastaroko parte hartzaile bat lanean. UTZITAKOA

Telefonoan musika sortzen

Sarean Euskaraz programaren barruan telefono mugikorraren aplikazioen bidez musika nahasteko, sortzeko eta elkarbanatzeko ikastaroa eman zuen DJ Makalak, aurreko asteburuan, Intxostiapunta gazte gunean.

Protagonistak liburuak dira

VI. Nafarroako Edizioaren Azoka izanen da urriaren 16an, igandean, Altsasuko ferietan, Zubeztia plazan. Editargi elkarteak sortu zuen azoka, besteak beste, Nafarroako argitaletxeen lanak jendearen "etxeetara" iristeko

Eneida C. M. eta Erkuden R. B.

ALTSASU

Editargi 1992. urtean sortu zen, baina beste izen batekin. "Nafarroako zenbait argitaletxe, Mintzoa, Txalaparta, Pamiela eta Igela, bildu ziren elkarte bat bultzatzeko asmoz, baina urtez geldirik egon zen", azaldu du Aritz Otazu Editargiko presidentek. Beste garai batzuk ziren. Duela sei urte Txalapatark eta Mintzoak gai hori ere berriz ere bultzatzeko elkarte ziren, eta Nafarroako argitaletxeak ez zirela ezagutzen ondorioztatu zuten. "Jendeak ezagutzen ditu betiko liburuak eta argitaletxeak, erakuslehoetan ikusten dituzunak, baina Nafarroakoak ezezagunak ziren herritarrentzat".

Nafarroako argitaletxeak ezagutarazteko eta bultzatzeko zerbait egitea pentsatu zuten, "eta bururatu zitzaigun lehenengo ideia feria bat antolatzea izan zen, azoka bat". Argitaletxe gehiago sartu ziren elkartean eta gaur egun hamahiru dira. Iruñeko Geltokin hasi ziren, Sarasate Pasealekura lekualdatu ziren eta handik Nafarroa zabaldu dute liburu azoka. Igandean, urriak 16, Altsasuko ferietan, VI. Nafarroako Edizioaren Azoka izanen da, 11:00etatik 15:00etara, Zubeztia plazan. Liburuak begiratzeko eta erosteko aukera ez ezik, Castillo Suarezek eta Morkotsek *Mel eta ehun goibel* ipuina aurkeztuko dute, 12:00etan, eta Izaskun Etxeberriak *Esaten ez den guztia* liburua aurkeztuko du, 13:00etan.

Nafarroako "argitaletxe independente guztiak" biltzen dira Editargi azokan eta ferietatik 20.000 lagun inguru pasatzen direla esan du Otazuk. "Pixkanaka lortu nahi duguna da ez bakarrik azokak egitea, baizik eta pixkanaka liburutegietan eta



VI. Nafarroako Edizioaren Azoka herrialdeetik egiten ari dira; igandean, Altsasun. EDITARGI

udaletxeetan gure liburuak aurkeztea; Nafarroako argitaletxeetan kalitatea badago eta denetarik dago: politika, gizarte liburuak, historia...". Azokaren lehenengo xedea, beraz, argitaletxeen katalogoa erakustea da.

"Guk bakarrik Iruñean egiten genuen Edizioaren Azoka, hamahiru gara, txikiak, eta ez gara dirudunak. Orduan, Nafarroako Gobernuarekin hitz egitea lortu genuen eta esan genion ikusten genuela Amazon eta horrelako plataformek dituzten baliabideak guk ez ditugula, eta zer lortu behar dugu? Pertsonen etxeetara iristea. Nola? Herrietan azokak egiten". Orduan hasi ziren Nafarroako Edizioaren Azoka herrietan egiten: Tafallan, Zangozan, Lizarran eta abar egon dira, eta igandean Altsasun egonen dira.

Feria

Zein da xedea? "Jendearengana iristea eta gutxienez liburuak ikusteko aitzakia ez egotea; hemen dituzu liburuak, eta liburuak gustuko badituzu, hemen daude". Jendearen etxetara iritsi nahi dute, "eta lortzen duguna da lortzen ari garena, azkenengo ferietan bostehun liburu saltzea". Azokagatik ez balitz pertsona horiek, seguruenik, ez zituzten liburu horiek erosiko. Nafarroako argitaletxeak ezagutaraztea, liburuak jendearengana eramatea eta jendeak "kultura" erostea nahi dute, beraz, azokarekin.

Nafarroatik ateratzen diren lehenengo urtea denez, azokaren egitura "sinpleena" egin dute: "Bederatzi argitaletxe egonen dira mahaietan banatuta, eta orduan mahaiak eta karpak egongo dira. Aurkezpen karpa bat ere egongo da, non liburuen aurkezpenak egingo diren". Egun horretan feriak direnez, "ferian ere liburuak egotea" nahi dute; "azkenean, protagonistak liburuak izatea".

Edizioaren Azokan aurki daitkeenaren ideia bat egiteko, Mintzoak, Otazu buru den argitaletxeak, 40 urtetan 600 bat liburu publikatu ditu, eta azokara, gutxi gorabehera, azken bost urtetan egin dituztenak eramaten dituzte. Txalapatark, Pamielak, Denonarteak eta abarrek antzeko egiten dute. "Azokaren beste xedeetako bat ere bada egin ditugun liburuei tartea ematea; gure katalogoa erakustea. Izan daiteke lekuagatik edo liburu hori dagoeneko pa-

perezko katalogoan ez agertzea, eta ferietan jendeak ikusten ditu eta galdetzen du: oraindik liburu hau duzue? Bada, bai. Webgunean egon daiteke, baina bada jendea liburu ikustea gustatzen zaiola". Azoka amaituta stand bakoitzak zenbat liburu saldu dituen jasotzen dute, kalkuluak egiteko eta "gauza" nola doan ikusteko.

"Jendeak asko galdetzen du. Lehenengo urte honetan jendea etortzen da eta agian ez da ezta enteratu ere feria bat dagoela. Hori ere bada helburu bat, ez da bakarrik gure argitaletxeak erakustea, baizik eta jendeak liburuak kuxkuxeatzea...". Kultura egitea. "Liburuak ez badiutze erosten, gutxienez ikustea Nafarroan badirela argitaletxe potenteak, potenteak kalitatean; kalitate ona dagoela".

Azokan erakutsiko eta salduko dituzten liburuetan ere hizkuntza aniztasuna izango da, hau da, gaztelaniazko eta euskarazko liburuak egongo dira. "Euskaraz gutxiago. Politika programa desberdin bat bultzatu behar dugu: ez da bakarrik euskaraz argitaratzea. Dirulaguntzak egon behar dira eta gure lana bultzatu behar dira, baina lortu behar dugu jendeak liburu horiek erostea". Horretan dabilta Editargikoek. "Nahi duguna da ez bakarrik liburuak euskaraz, baizik eta argitaratu eta horiek jendearen etxeetara iristea. Ez da bakarrik artitaratzea argitaratzeagatik". Elkartearen helburua hizkuntza desberdinetan argitaratzea da, "kasu honetan gaztelaniaz eta euskaraz", baina batez ere euskara etxeetara iristea lortzea.

"Nik askotan esaten dut kulturaren munduan gabiltzanok betiko krisi batean gaudela". Gobernuetako aurrekontuetan kulturarentzat "txanpon batzuk" baino ez dituztela uzten kritikatu du Otazuk. "Ez diote eman beharreko garrantzia". Covid-aren ondoren liburuen salmenta jaitsi dela esan du. Momentu txarra dela aitortu du, besteak beste, paperaren eta "denaren" prezioak igotzen ari direlako.

VI. NAFARROAKO EDIZIOAREN AZOKA LEHENENGO ALDIZ IZANEN DA ALTSASUKO FERIEAN



Castillo Suarez eta Jose Mari Morcillo 'Morkots' 'Mel eta ehun goibel' liburuaren egileak.

"Garbi neukan Melek zein ezaugarri fisiko izango zituen"

CASTILLO SUAREZ ETA JOSE MARI MORCILLO IDAZLEA ETA ILUSTRATZAILEA
Altsasuarrek elkarrekin egin duten laugarren liburua aurkeztuko dute igandean, Nafarroako Edizioaren Azokan: 'Mel eta ehun goibel'

Eneida C. M. eta Erkuden R. B.

ALTSASU

Mel inuitaren istorioa kontatzen du *Mel eta ehun goibel* Castillo Suarez idazle eta Jose Mari Morcillo *Morkots* ilustratzaile altsasuarren azken lanak. Urriaren 16an, igandean, Altsasuko ferietan antolatutako Nafarroako Edizioaren Azokaren barruan, liburua aurkeztuko dute, 12:00etan, Zubeztia plazan. Dagoeneko liburu dendetan salgai dago.

Castillo Suarez eta Jose Mari 'Morkots' berriz ere elkarrekin lanean.
Castillo: Bada, bai. Nik uste beti esaten dugula: bueno, hau azkena izango da. Baina gero hain ongi pasatzen dugu, segitzen dugula.

Jose Mari: Hala da, bai.
Nork jotzen du noren atea?

J.M.: Castillo lok nire atea jotzen du. Berak beti dauka materiala, beti dauka ideien bat edo proposamen bat.

Zenbat denbora eman duzue 'Mel eta ehun goibel' liburuaren egiteko?

C.: Testua pandemia garaikoa da eta Denonartean argitaletxeak galdetu zidanean ea zerbait neukan argitaratzeko modukoa, hartu zuen. Ikastolen elkarteak, Ikaslekarrek, makinaren inguruko ipuin bat eskatu zidan, eta bi egin nituen: *Loinatzen loa* eta *Men eta ehun goibel*. Denbora baneukanez... Bi gauza oso desberdinak dira. Ikaslekarrek bestea aukeratu zuen eta hau gelditu zen hor. Denbora handi bat eman zuen pre-maketa egiteko eta erabakitzen non jarri behar ziren marrazkiak eta non testuak. Denonartean argitaletxeak badauka ezaugarri berezi bat eta da ez daukala bildumarik. Beste zenbait argitaletxek, Elkarrek, Ereinek eta abarrek, badituzte bildumak; Auskalo, Batela eta horrelakoak, eta orduan badakite bilduma horretako liburuek zenbat orrialde dituzten, zer formatu duten... Baina argitaletxe honek daukan berezitasuna da ipuina hartu eta propio sortzen dutela formatu bat.

Aurretik elkarlanean aritu zarete, laugarrena da, nola aukeratu duzue nork egingo dituen ilustrazioak?

C.: Argitaletxea izan baino lehen ipuina Jose Mariri pasa nion eta berak Melen diseinu bat egin zuen. Garbi neukan zein ezaugarri fisiko izango zituen. Mel inuita da, eta orduan txikitxo da, borobila, betileak oso nabarmenak ditu, begiak oso txikiak eta ez nuen neska edo mutila izatea nahi.

J. M.: Marrazterakoan ez nuen mutikoa edo neska egin; Mel da.
C.: Antropologo batek, Aizpea Leizaolak, esan zigun Mel ez dela inuiten izen bat. Hainbeste kontsonante dituela inuiten izenak

"DENONARTEAN ARGITALETXEAK IPUINA HARTU ETA FORMATU PROPIO BAT SORTZEN DU" SUAREZ

"GARRANTZITSUENA DA LEHENENGO IRAKURKETA; ZER IRUDI DATOZKIZUN" 'MORKOTS'

eta abar. Oso zorrotza da. Garbi geneukan *Mel eta ehun goibel* izango zela izena.

Nolakoa da ilustratzailearen prozesua?

J.M.: Garrantzitsuenetarikoa da ipuina lehendabiziko aldiz irakurtzen duzun momentua: ea zer esaten dizun edo zer irudi datozkizun burura. Momenturik inportanteena dela uste dut. Hortik tiratzen joatean zara eta zenbait argazki eta abar hartzen dituzu, giroan sartzeko. Hotza sentitzen saiatzen zara... puntu horretan sartzen.

Idazlea aurretik ezagutzeak eragina du?

J.M.: Inportantea da, batez ere badakidalako Castillorekin askatasun osoa dudala nahi dudana egiteko. Hala izaten da normalean. Testua ematen dit,

eta normalean itxita izaten du testua. Bidaltzen dizkiodan marrazkiak gustukoak izaten ditu. Ni berarekin aske sentitzen naiz. Borroka handiena nirekin da, zer marrazki egin behar dudana eta abar. Onerako eragiten dit ezagutzeak, lana errazten dit. Beste lan batzuekin agian egilearekin eztabaida gehiago izaten dira, baina ez da kasua.

C.: Nik uste alor horretan jatorra naizela. Nik denborarekin estutzen dut. Oso marrazkilari ona da, hori da.

Zer teknika erabiltzen duzu?

J.M.: Paperean bozeto batzuk egiten ditut eta gero digitalki margotzen ditut. Kasu honetan horrela egin dut, ordenagailuan koloreztatu dut. Desberdintasuna da ordenagailuan margotzerakoan baliabide gehiago ditu-

zula. Koloreak aldatzeko eta abar. Azkarrago egiten duzu. Egia da eskuz koloreztatutako lanek beste xarma bat dutela, xarma berezia, baina prozesua desberdina da eta ordenagailuan azkarrago egiten da. Gaur egun egiten den edozer gauzarekin gertatzen den bezala.

Horrelako liburuetan ilustrazioek asko esaten dute, ezta?

C.: Bai, album ilustratu bat da eta ilustrazioak eta testua osagarriak dira.

J.M.: Aldi berean informazio berdina eta desberdina ematen dute. Esaldi baten informazioa marrazkiarekin osatu daiteke. **'Mel eta ehun goibel'. Nondik dator?**

C.: Izena erdi lapurtuta dago. Badut lagun bat, Joseba Atondo, baztandarra da, eta bere amatxik kontatu zion bazegoela emaku-

me bat bortzeun goibel deitzen zena. Oso emakume berezia zen. Galdetu nion ea utziko zidan izen hori ipuin baterako, eta beste ehun goibel existitzen zenez, ehun goibel deitzea erabaki nuen. Horrekin errima egiten duen izen bat bilatu nuen, eta Mel izen polita iruditu zitzaidan, nahiz eta inuiten izen bat ez izan.

Zer kontaktatu du ipuinak?

C.: Mel iglu batean bizi da, elurartean eta bakarrik sentitzen da bere herriko haur bakarra delako. Nahiko giro aspergarrian bizi da. Goibelak lainoak dira eta orduan Mel eta ehun goibel deitzen dute, Meli iruditzen zaiolako bere herrian dagoen eguraldi txar hori bere errua dela, nolabait esateko. Hori alde batetik. Beste alde batetik han bizitzaren

gauza asko ez ditu inoiz ikusi; liburuak ez du esaten, baina bere herrian ez dauka telebistarik, ez ezer ikusteko makinarik. Egun batean, elur erauntsi baten ondoren, handik joatea erabakitzen du, eta esaten du: "ni joaten banaiz goibel guztiak nire atzetik etorriko dira eta nire herrian eguraldi hobea egongo da". Orduan, eguraldi hobea egiten duen lur batera joaten da, toki epel batera, eta ez dugu gehiago kontaktuko, baina ezagutzen ez zituen gauzak ezagutuko ditu.

"CASTIREKIN LAN EGITEAN NAHI DUDANA EGITEKO ASKATASUN OSOA DUT"
'MORKOTS'



Zenbat soinu



Osasun mentalen egunaren harira egindako collage-a.

URRIAK

16

NAFARROAKO VI. EDIZIOAREN AZOKA

ALTSASU

11:00 - 15:00

Zubeztia Plaza

"Betiko jolasak mantentzen ditugu"

Txantxarik, Altsasuko udal ludotekak, egoitza berria Intxostiapunta eraikineko beheko solairuan du. Han hartu gaitu Joxepi Markinez Arakamak. Ikasturtea astelehenean hasi bazen ere, haur eta gurasoek egoitza joan den astean ezagutzeko aukera izan zuten

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

1 Zer da ludoteka bat?

Jolasteko toki bat da. Ludoteka baten helburua jolasa da.

2 Zertarako balio du?

Jolasen bidez ikasten dugu, esperimendu egiten dugu. Harremanak sortzen dira, pertsona berriak ezagutzen ditugu. Haurrak sozializatzeko modu bat ere bada. Hemen ikastetxe guztietako haurrak elkartzeko dira. Ludotekan mundua zabaltzen zaie, beste haur batzuk ezagutzen dituzte.

3 29. urteurrena bete duzue. Denbora horretan haurrak aldatu dira? Edo behar eta nahiak berak dira?

Aldatu egin dira, gizartea ere aldatu da. Guk ludotekaren hasierako esentzia hura pixka bat mantendu nahi dugu. Oraingoz

ez ditugu sartu ordenagailuak eta horrelako gauzak, gizartearekin batera doazenak. Jolasa mantentzen dugu: sinbolikoa, mahai jolasak, talde jolasak... betikoak. Horiek mantentzen ditugu uste dugulako galtzen ari direla. Digitalizazioaz inguratuta bizi dira eta batzuetan kostatu egiten da; txikiekin ez hainbeste, oso gustura. Baina, gero, handiagoak eskatzen hasten dira, edo beraiek etortzen dira telefono mugikorren. Ohartarazten ditugu. Batzuetan gauzak egiten ditugu. Hori lantzeko badute aukera pila eta badakite nola egin. Hemen beste hainbat gauza eskaintzen ditugu.

4 Bertan ikasitakoarekin zailago izanen dute esatea: aita, ama, aspertzen naiz!

Hori da.

5 "Dugu" esan duzu. Ez zaude bakarrik ludotekan?

Ez, Bidatz Razkinek eta biok lan egiten dugu. Bidatzek hiru urte daramatza eta oso gustura gaude biok haurren artean.

6 Zergatik aldatu zarete tokiz?

Ia-ia hasieratik nago ludotekan eta beti ikusi ditut Garbitoki eraikinean hainbat gabezia. Esate baterako, segurtasun falta. Gartzia Ximenez kaleko bidegurutzean, sarrera oso arriskutsua zen. Sartzerakoan eta ateratzekoan haur pila biltzen ziren. Beti jakinarazi diet udal guztiei. Bestalde, komunak ludotekatik kanpo zeuden, pasabide bat zegoen eta horrek ere arrisku egoerak sortzen zituen. Kontrol handia egin behar genuen. Lehen solairuan zegoen, eta nahiz eta igogailua izan, ludoteka hobeto dago beheko solairuan kokatuta. Gainera, patioa ondoan dugu. Beste eraikinak bazituen gabezia batzuk eta, horregatik, behin baino



Joxepi Markinez Arakama, Altsasuko udaleko ludotekaria.

gehiagotan eskatu dut tokiz aldatzeko.

7 Mustutzeko ate irekien jardunaldia, merendua eta magia saioa antolatuta dituzue. Jendeak zer esan du ludoteka berriaz?

Jende dezente etorri zen. Denerarik dago. Batzuek nostalgia dute, beste batzuei gustatu zaie, hau beharbada txikiagoa dela... Guztien lehen inpresioa ona da, gehienei gustatu zaie. Hainbatek esan dute askoz hobeto dagoela tokia, sarreragatik edota komun barruan dagoelako. Hori ere baloratzen dute.

8 Izena eman dute?

Bai, jada ia-ia beteta daude taldeak. 8 eta 12 urtekoen taldeak falta dira osatzeko. Baina horiek, normalean, beranduago etortzen dira, azarora aldera, eguraldi ona bukatzean. Ia saio gehienak beteta ditugu eta itxaron zerrendan daude batzuk.

9 Goian duzue gazte txokoa. Harremanak sor daitezke?

Eraikin honek gaztetxokoarekin eta musika eta dantza eskolarekin sinergiak sortzeko aukera eskaintzen du. Gainera,

Mila Kolore elkarteak ere badauka bere txokoa. Badaukagu udal zerbitzuen arteko harremana eta proiektu asko daukagu. Jendea oso prest dago gauzak elkarrekin egiteko eta hori da gure asmoa, hori sustatzea.

10 Elkarlana, beraz?

Hori da gure asmoa behintzat. Proiektu puntualetan. Bestela, esaterako, gaztetxokoak sukalde du eta han sukalde tailerra egiteko gora igo daiteke. Garbitokin zegoen eszenatokia jarri dugu hemen eta musika eskolakoek esan zuten behar bada ikasleak instrumentuekin ludotekara jaitsi zitezkeela. Halakoen inguruan hizketan hasi gara.

11 Patio bat eta kirol pista bat duzue aldamenean. Baduzue erabiltzeko asmorik?

Patioa hemen bertan egonda, aukera pila ditugu eguraldi ona dagoenean. Garbitoki eraikinetik ateratzeko errepidea pasa, bidea oinez egin... Handiekin ongi, baina txikiekin, saio motzak dira, eta joaterako bueltatu beharra zegoen.

HASI ZURE EGUTEGIA prestatzen

NEURRI ETA EUSKARRI DESBERDINAK

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

gik DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu